

GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia --Goierriko Aldizkaria-- dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. 34. zenbakia. 93ko maiatza.

Herrietako kronikak urratzen



BEASAINGO LOINATZ JAIK



BEASAINGO UDALA

Alkatearen Agurra

Euskadiko herri guztiek egiten dute pausaldi bat eguneroko lan gogorraren ibilbidean zehar jaiegun batzuetan gozatzeko.

Gu ere, beasaindarrok, gure aurreko Loinatzko Martin Santu maitearen jaiak baliatzen gara, benetako jai herrikoietan gozatzeko.

Azken urteotako bidetik jarraituz, aurten ere, herriko elkarte eta talde guztien laguntzarekin, kultur eta kirol-iharduerak festa eta dibertsioekin osatuta azaltzen dira egitarauan.

Beraz, guztioi goza ditzagula jai hauek. Zorionik beroenak beasaindar guztioi eta ongietorri-agurra bisitatuko gaituzuen denoi.

Alkatea: Jose Luis Arriola Trueba

"MULTISOLEKIN, ZU ERE MODAN JARRIKO ZARA"



Ez zaitez itzalean geratu! Jar ezazu zure begirada modan. Ezagutu itzazu MULTIOPTICASen Multisol diseinu berriak. Ausartak, egun-egungoak, erakargarriak... baita beren prezioa ere: 1.500 Pta. Multisolekin, zu ere modan jarriko zara. Begira, begira! Eta orain, Multisolak erostean, pin bilduma bat oparituko dizugu.



J. Larranaga
OPTIKA
MULTIOPTICAS

BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

1.500 pta. n

kamixeta bat oparitzen dizugu gainera!

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

34. zenbakia. 93.eko Maiatza. Debaldeko alea. Tirada: 3.000 ale. 2.500 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre-etxea, 1. pi-sua (Correos-gainean). Tfna: 889612. Faxe: 889545. 124 posta kuxa, Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Rosa Amundarain, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Es-

titxu Imaz.

Kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Xabier Gartzia, Igor Eguren, Mikel Oiartzabal, Gabino Murua, Goiztiri AEK, Jesus Insausti, Juanjo Balerdi, Iñaki Amundarain, Marijoxe Madariaga, Miren Kortaberria, Zirika Irratia, Fermin Eguren eta Martin Garmendia.

Azala: Foto Etxe. Zenbait argazki: Foto Etxe eta Zure Argazki.

Gure eskerronak: Gure "sponsorrei": publizitatea ematen diguten guztiei. "Antza"ri, "CAF"i eta "Egunkaria"ri. Era batera edo bestera

lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzuenoi

Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANtza. S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria Tf.

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

☞ **HASI BESTERIK EZ GARA EGIN, HERRIZ HERRI, HERRIETATIK GOIERRI EGITEN. ZENBAKI HONETATIK AURRERA GOIERRIKO HERRIEN KRONIKAK ETA GEROZ ETA INFORMAZIO GEHIAGO, BERRIEMAILEEN ESKUTIK.**

☞ **"PEÑA GORRIZ", FUTBOLA BIZITZEKO BESTE ERA JATOR BAT, FUTBOLEZ GAINDIKO GIZARTEKO FENOMENO HONI BURUZ: PEÑAK, ULTRAK, ETABAR. ELKARRIZKETA: MARTIN ALUSTIZA, SEGURAKO PILOTARIAK BINA-KAKO TXAPEL OFIZIALA LORTU DU.**

☞ **GOIERRIKO ZENBAIT KULTUR ELKARTEEI ERREPASOA: BEASAINGO "KOSKOLA" TXARRANGA, ORDIZIAKO "BETI ARGÍ" BANDA ETA SEGURAKO "ELORRI" K. E. AXIER ZINKUNEGI LEGORRETAR AKTORE GAZTEAREKIN.**

☞ **EUSKARAREN BERRIAK: KORRIKA SARENAK ETA OSPATZEAR DAGOEN KILOMETROAK 93RENAK. BEASAINGO FESTEN EGITARAU, MENDI IBILALDIA, ZINE, MUSIKA, BERTSO ETA OHIZKO SAILAK.**

Osakidetzak espainiera hutsez

Aurtengo Eskola-Osasuneko Programako medikuntza-miaketak egin ondoren, Ikastolako gurasooi (Dere-dukoen gurasooi), Beasainen behintzat, espainiera hutsez beteta iritsi zaizkigu orri elebidunak. Osakidetzak beste behin ere (duela sei eta bost urte gauza bera gertatu baitzitzaiagun beste seme-alabekin) bere ohizko prozeduran jarraitzen du orri elebidunak espainieraz betez eta euskaraz bizi nahi dugun euskaldunoi geure seme-alaben osasun-egoerari dagokion informazioa derrigorrez espainieraz irentsi ezaziz.

Dagokien Erakundeetara salaketak bidaltzeaz gainera, komunikabideetan azaltzea ere beharrezkoa dela iruditu zait eta horregatik bidali ditut lerro hauek.

Jokabide honekin lege eta arau guztiak hausten dira, baina behin eta berriz gauza hauek salatu arren, bere erazteko benetako neurriarik ez da hartzen. Zapalketa hauek zoritxarrez, egunero jasaten ari gara euskaldunok han eta hemen, baina geure izaeraren aurka non edo non egunero egiten zaigun psikologi gerra erahiltzaile eta genozidio-erako hau, ez

dago kode penalean zigortuta eta administratiboki ere "pasa" egiten da, ezen inolako urratsik ez baita nabari dagoen legea bera ere erabilpenari dagokionean benetan bete dadin.

Euskaraz bizi nahi dugunok, lepotik goraino eginda gaude jokabide hauekin eta administrazioak arlo honetan (behar bezalako erabilpenean) eskaintzen digun bermetasuna, hutsala da. Zein da orduan irtenbidea? Egunero salaketak egiten has-tea? Leku guztietan zaunkaka aritzea? Horiek al dira euskaraz bizi nahi dugunoi gelditzen zaizkigun irtenbide bakarrak?

Andoni Sarriegi

Partzoneriari, mendien garbitasuna dela eta

91.eko irailean (urte t'erdia pasatu da ordutik) Idiazabal Kirol Elkartearen Mendi Saitetik gutun bat zuzendu genion Gipuzkoa eta Arabako Partzoneriaren lehendakariari. Gipuzkoako Mendi Federakuntzak urtero eratu ohi duen kanpainetan ikusitako zikinkeraren kezka eraginda, Urbia eta Altzania aldeko parajeak gar-

bi eta txukun gordetzeko kanpaina bati ekitea proposatzen genion.

Erabiltzaileek jabetu egin behar dute, mendian nola portatu, halako ingurua izango dutela gero; mendia txukun nahi badugu, horrela ibili behar, derrigor. Horra gure arrazoi-keta. Partzoneriari, jendea arazoaz kezkatzeko ekinaldi berezi bat egiteko eskatu genion; puntuz puntu xehetua eta gure lankidetzak eskainiz.

Batarekin hitz egin, bestearekin, zai eta zai, hoska, galdezka... erantzunik ez oraindik. Hitz garbirik ez eta behin eta berriz eskatutako erantzun idatzia auskalo noizko. Horregatik, Partzoneriak herritarroi gutxieneko begirunea zor digulakoan, gai honetaz eta gure lankidetzak eskaintzeaz zer pentsatzen duen edo zer egin behar duen adieraz dezan eskatu nahi diogu. Zerbait jakiteko, komunikabideetara jo behar; zer erremedio.

Uste dugu, herritar batzuen kezkei (direnak direla) paso egin eta ezer gertatuko ez balitz bezala ibiltzearekin arazoa ez dela konpontzen; elkarrekin lan egitea da bidea eta horretarako, lehenik, erantzun egin behar.

Idiazabal K.E.-ren Mendi Saila

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA


GERRIKO
S. A.
liburudenda

LIBURUAK
JOSTAILU DIDAKTIKOAK
ESKOLA - MATERIALA
BULEGO - MATERIALA

elosegi, 16 - ☎ 943-886500
20210 Iazkao - gipuzkoa

SUKALDE ETA BAINUKO HALTZARIAK
ELEKTROTRESNAK - TV - HI FI

 **OYARBIDE**

IGARTZA-ETXEA,2
Tlf:88 26 21 - 88 15 96
Fax: 88 77 85
BEASAIN

OLABERRIA MERKATAL Z.
Tlf:16 16 00
Fax: 16 16 02
OLABERRIA

Lana

☐ Fotokonposaketa lanak egiten ditugu GOIERRITARRAn, kartelak, inprimakiak, eta horrelako mota guztietarako lanak. "ANtza" Inprimategiaren batera (maisuen eskutik) zure inprenta-lanak egingo ditugu. Dei 889612 telefonora edo inguratu lasai Ordiziako gure egoitzara.

☐ Ezusteko bat (afaria, bidaia...) gerta zaizula? Ez dakizula zeinekin utzi umeak? Deitu guri, esperientzia eta titulua dugun neska batzuk gara, euskaldunak, noski. 889877-ra dei (Esther).

☐ Neska euskaldun batek ume eta agurreak zaindiko lituzke, etxeko lanak egingo. Esperientzia badut. 885383, goizez nahiago.

☐ 32 urteko gazte esperientziaduna naiz eta arotz-lanak egingo nituzke, 17 urte daramatzat honetan, C-15-RD furgonetarekin. Beste edozein lan ere igual. Gauzez dei 725262ra, Joakin.

☐ Estetizista masajista esperientziaduna lan egiteko pronto. 725253.

☐ Batxilergoko ikasle batek lana egitea zer den probatu nahi du udan. Edozertan arituko litzateke mutila: taberna, tailer, e.a. Dei edozein ordutan Ordiziako 886432ra.

Salerosketak

☐ Litroko koñak botila huts mordo daukat (4.000 bat), garbi-garbiak. Ietatik 2etara edota gaueko 9etatik aurrera dei 551461ra. Urnieta. Migelengatik galde.

☐ Talbot Horizon GLS-1.5 bat salgai 10.000 durotan. 653510 tfnoan.

☐ Turismo erremolkea salgai, 884881an.

☐ Saldu edo trukatu egiten da Peugeot 504 (SS-M) diesela ITVrekin. 150.000 pztatik edo kotxe txiki bategatik. Dei: 880851ra (Nekane).

Etxebizitzak

☐ 90 m²ko pisu jantzia, egoera onean, salgai Ordizian. 887737.

Agurrak:

Ataun, erreta jazaun;
egosita miñe;
Ataun ipurzikiñe.

JAKINTZA IKASTOLAREN 25. URTEURRENA

* **Maiatzak 2, igandea:** Bazkari herrikoia Ordiziako Pilotalekuan 14,00etan. Ikasle eta ikasle ohien eskutik, dantza, bertso, e.a. Ikastolaren sortzaileei omenaldia eta Kilometroak 93aren pregoia irakurtzea.

* **3, astelehena:** Mailaka, irteera ekologikoa, marrazki erakusketak, jukuak, bideo emanaldia, herri kirolak eta apikultura erakusketa. Hitzaldia eskolaurrean: Haurraren garapen afektiboa.

* **4, astearte:** Ikastolako BBBko ikasleen antzerkia, jokuak, "altxorren bila" herrian zehar, irteera ekologiko eta kulturalak eta Rock jaialdia.

* **5, asteazkena:** Pailazoak, bideo eta jokuak, mahai-jokoak eta merienda; hitzaldia Barrenan 19,00etan: Etorkizuneko lan mundua.

* **6, osteguna:** Txotxongiloak, Alkartasunako ikasleen eskutik, kirolak, e.a. 18,30etan Jaialdia Jakintzako umeen eskutik Herri Antzokian.

* **7, ostirala:** Hasierako eta goi ziklokoen joku eta denbora pasak, antzerkia eta bideo emanaldia; 22,00etan Antzerkia: Fernando bizirik hago oraindior, Herri Antzokian.

* **8, larunbata:** Puzgarriak egun osoz Jm. Barandiaran plazan. Asteazkenean zehar: Hitzaldi eta debateak BBBko ikasleek Barrenan, eskulanean erakusketa eta 25 urte hauetako argazki erakusketa.

LAZKAOTXIKI BERTSOPAPER LEHIAKETA

Lehiaketa 3 mailatan banatzen da. Gaztetxo, Gazte eta Helduen mailak. Gaztetxoan mailan, gaia "Kilometroak aurtan Ordizian". Neurri, doinu eta gaiak libre izango dira gainontzekoetan. Lanak Uztailaren 1aren aurretik bidaliko dira Argi-Berri Elkartera, Gipuzkoa k. 15 Ordiziara. Sari bikainak izango dira.

BESTELAKOAK

* Maiatzak 9 bitartean Alfredo Feliuren argazki erakusketa Ordiziako Barrenan: "Euskal Tradizioaren Jaiak".

* Legorretako errokodromoan egin beharreko eskalada ikastarorako izen emate epea maiatzaren 14a bitartean. 16 orduko, 1.500 pzt.

* Beasaingo Asmube-ren lokaletan naturismoari buruzko informazioa, maiatzeko asteazkenean, Dolores Meleroren eskutik.

* Seguran Maiatzaren 7an: 21.30etan Zopajale elkartearen bertso afaria Mañukorta eta Peñagarikanorekin. 22.00etan, Baratze pelotalekuan, Kirola Elkartek antolatuta Martin Alustizari omenaldia, aurretik gazteak eta ondoren Alustiza-Maiz, Bergara-Errandonearen aurka.

EGUTEGIAK

Ordiziako Herri Antzokia: Maiatzak 7: Antzerkia; 8: "Hoffa"; 9: "Solo en casa" eta "El aceite de la vida"; 10: idem. "Esencia de mujer", "El rio de la vida" eta "Fortaleza infernal" data zehazteke.

Ordiziako Mendizaleak: Maiatzak 9: Bertako umeen martxa. 16: Lizarraga-Urba. 23: Euskadiko umeen martxa (Bergara). 30: San Migel.


Pausogaizto Goierriko Mendizaleak: Maiatzean, Oidui-Ondarr.

Beasaingo Aitzgorri Mendizale Elkartea: Maiatzak 2: Arrastotzekogaine; 9: Aitzgorri; 16: Ganbo; 23 eta 30: Herriko Jaiak.

Ordizia/Beasaingo Goardiako farmaziak: Maiatzak 3: Atorrasagasti; 4: Azpilikueta; 5: Jauregi; 6: Larnaga; 7: Cuesta; 8-9: Jauregi; 10: Arriola; 11: Urbizu; 12: Atorrasagasti; 13: Azpilikueta; 14: Jauregi; 15-16: Urbizu; 17: Larnaga; 18: Cuesta; 19: Arriola; 20: Urbizu; 21: Atorrasagasti; 22-23: Larnaga; 24: Azpilikueta; 25: Jauregi; 26: Larnaga; 27: Cuesta; 28: Arriola; 29-30: Azpilikueta; 31: Urbizu.

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA ANTZIZAR UDAL KIROLDEGIA

KIROLA ERE EUSKARAZ
ABONATU ZAITEZ 88 79 00



 Fotokonposaketa lanak egiten ditugu **GOIERRITARRA**n, kartelak, foiletoak, inprimakiak eta mota hauetako lanak. "ANTZA" inprimategiarekin bat (*maisuen eskutik*) zure inprimategi lanak egingo ditugu. Deitu lasai ☎ 88 96 12 ♣

FOTOKONPOSAKETA

ANTZA

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnoak: (943) 37 15 45 Faxe: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

GRAFIKAGINTZAN AURRERA GOAZ

Lazkao Txiki ene gogoan

Goizean goiztar jeiki eta hortxe ikusi dut Txindoki, zerura goruntz, eguzkiaren aldetik. Hortxe etorri zait eguzkiaren argitasuna, sortaldetik. *"Eunan aurtzaro besteik etzera biotzeko egunsenti"* pentsatu dut gaur ere. Baina pentsamendu hori, eta Txindoki ikusteko modu hori, nire-nireak ez direla jabetu naiz. Lazkao Txiki behin kantatutako bertso ezagunaren ardatzean mugitu da hor nire pentsamenduaren gurrupila. Goierriar guztiok ikusten dugu Txindoki egunero, baina Joxe Miel Iztueta bakarrik izan zen gauza gure mendi eder hori bertso paregabe hura kantatzeko. Bizitzako gertakizunak, arruntenak zein goren mailakoak, egokiro paratuko zizkizun Lazkao Txiki bertsoen bidez, eta bere bertsoen emanak euskaltzale guztiongan izan duela eragina esango nuke. Umorezkoetan ezetik bertso sakonetan ere ongi moldatzen zela, eta noiz ziria sartu eta noiz eztena erabili ongi zekiela esango dizu bertsozale aditua denak, baina ni ez natorkizu kontu horiek berritzera, Joxe Mielek nire gogoan utzi dituen arras-toetako batzu azaltzera baizik.

Dagoeneko dozena bat urte pasatxo izango dira Lazkao Txikirekin aurreneko aldiz hitzein nuenetik. Beasaingo taberna batean, Agirrerenean, nengoela, Joxe Mielekin batera Xebastian Sarasola (berau nire bizilaguna, eta hainbat urtetan Joxe Mielen lankidea) hurbildu zitzaidan eta, Joxe Mieli begiratuz eta nitaz ari zela, Xebastianek: *"Ezautze al dek au? Au baserriko pentsu zakuk jasotzen dizkigun semea dek"*. Aurrerantzean, *"pentsu-zakuk jasotzen zizkionaren semea"* izan nintzen Lazkao Txikirentzat, nahiz eta batzutan *"Zeferinoren semea"* izan. Be-



raz, aitaren lanbideak mediante eza gutzen ninduen Lazkao Txiki, eta ez nire izen-abizenek. Handik aurrera inoiz gutxitan bakarrik, eta ia beti Agirrerenean, izan nuen Joxe Mielekin hitzegiteko parada, baina hitzaspertu mamitsuak izan ohi ziren denak. Haie-tatik, bere hizkuntzarekiko maitasuna gogoratzen zait. Jendeak beharrik ez dagoenean ere *"-ki"* atzizkia erabiltzen duela (*"zuzenki"* esan beharrean, *"zuzen"* esan eta kitto!) eta, *"jeneralki"* ontzat hartzen badugu, berandu baino lehen *"presidenki"* ere ontzat hartu beharko dugula esango zidan grazia handiz. *"Des-"* aurrizkiaren erabileraz egiten ditugun abusuak ere salatuko zizkidan. Zergatik erabili *"desagertu"* hitza, gauza bera adierazteko *"ezkutu"* edo *"galdu"* hitzak erabiltzea aski zaigun kasuetan? *"Martxa honetan 'desibili' entzungo dugu aurki, 'gelditu' entzun ordez"* botako zidan ironiaz. Tankera horretako hizkuntza-lezio dexente ikasi nizkion Joxe Mieli. Gainera, tabernan, telebistako hitzunen batek non hankasartzea egingo erne egon ohi zen, eta telebistakoak gaizki

esandakoa modu egokiago batez azalduko zizun berak berehalaxe.

Erraturik egoteko arriskua izanda ere, nork bere iritziak gorputz eta arimaz aldeztu behar dituela ikasi nion. Hala ere (eta honetan ez netorkion bat), bere iritziak defenditze horretan azkarregi berotu eta sumindu ere egiten zen sarritan. Gogora datorkit behin, Argia aldizkaria eskuetan zuela guztiz suturik nola etorri zitzaidan. Berak ez zituela modu hartan esan Argian jartzen zizkietenak, eta, elkarrizketatzaileak (Lurdes Auzmendik, nire ustez) berak kasetera jaulkitakoak gaizki jaso zituela hasi zitzaidan mindurik. Elkarrizketakoarekin hasi eta, horretaz, ere baliaturik, H letraren erabilkeraren aurkako eta Batua-ren kontrako bere argudioak bota zizkidan gero, purrustada batean, beste hainbatetan egin ohi zuenez. Geroxeago baretu zen noski, eta euskaldunberrian merituez-eta jarraituko zuen...

Erraturik egoteko arriskua aipatu dut hor goian, hain justu Joxe Miel gure hizkuntzaren etorkizunaz erraturik zegoelakoan bainago. Pesimistatzat (*"ezezkorra naiz ni"* bere hitzetan) jotzen zuen bere burua, eta ez zion euskarari etorkizun garbirik ikusten. Hortaz, euskararen egoerak sorrarazi ohi zion sofrikarioa aitorturik, *"hiltzea nahiago nuke euskara galduta ikustea baino"* bota zidan beste behin. Euskara bizirik eta onik irtengo den fedean egon beharrean gaude gu. Dena dela, udaberri urratu berri honetan Abalingo lorerik apainena ihartu zaigun arren, gure betiereko udaberrian lore ugari jaioko dira. Lazkao Txikiz oroitzen garen artean udaberria ez da hemen hilko.

Xabier Gartzia

Irakur

EUSKALDUNON

Egunkaria

Korrikaren Inguruko Ekintzak


Korrika 8ak Martxoaren 31an Goierrin izandako arrakasta ezin da ulertu aurrez emandako girotze prozesurik gabe. Aipagarriak izan ziren:

* Martxoak 26eko Sukaldaritza lehiaketa eta ondoren egin zen euskaldeko afaria Beasainen. Goierriko 20 elkarte hartu zuten parte: Idiazabalgo Axari; Lazkaoko Gerriko, Domarda, Txuri urdin eta Esparru; Ordiziako Itxaropena, Larrunarri, Azari, Txapel Gorri, Pelotazale eta Irriki; Beasaingo Loinatz, Beti Bizi

eta Arrano; Arriarango Intxaurren; Ormaiztegiako Barduliarrak eta Basotxulo; Legorretako Jotake; Segurako Elorri. Laguntzaile: Julki eta Iñaki gozotegiak; Pagosa, Gariona eta Garitza okindegiak; Etxezarreta eta Elozegi edari banatzaileak. Epaileak: Juan Rubio, Xabier Martinez eta J.A. Sartrategi. Irabazleak: Itxaropena eta Larrunarri. Guztira 400 bat lagun afaltzen, inoiz izan den kopururik handiena. Erabat arrakastatsua partehartze, antolaketa eta giro aldetik.

* 27an, kotxe-karabana: Goierri guztia zeharkatu zuten 30en bat autok. Ordiziako Bertso-jaialdia, Herri Antzokia jendea ezin harturik, saio ona.

Arrakastatsua, hunkigarria, jendetsua eta zabala izan zen Korrika 8aren ibilbidea Goierrin zehar. Nafarroatik



Idiazabalen sartu zen, Etsegaratetik behera Izalgo hainbat emakumeek jeitsi zutela lekukoa, herrian jubilatuek jaso zuten, ondoren Zegama eta bertako herri eskoletako haurrek, bertsolariak, e.a. Kilometro erosleak: Udala, Jaso eta Kimu.

Olaberrian aipatzekoa Salba Iriarte Errealekoak eraman zuela lekukoa, Km.a Hiper Olaberriak erosi zuen. Lazkaon jendetza handia eta giro ona. Testigueramaileak, besteak beste, Maizpideko ikasle eta irakasleak, Aek-ko ikasleak, Auzmendi jostunak eta Josean Kerejetak. Km. erosleak: Maizpideko ikasle eta irakasleak, Gerriko KE, HB, EHE eta Aek. Ordizian jendetza izugarria eta giro hunkigarria. 1.152 kma. egin zuen lekukoa Udaletxe aurrean. Lekukoeramaileak:

Rugbylariak, Kilometroak 93, Ikastola, ikasleak, M.Mendizabal, Lazkao Txikiren senide bat, Jaxinto Urretabizkaia kupelgilea, "Kutturru" aktorea, e.a. Km. erosleak: EA, HB, Jakintza, Institutua, Goierri LE, Gazte Asanblada, e.a.

Beasainen ere parte hartze handia. Lekukoeramaileak: Porteria auzo elkartekoak, CAFeko LAB, Juanito Cia, ikasleak, JF Auzmendi, Jon Gorrotxategi batzordeburua, I.Murua, Jokin Mujika, Alkartasuna eta Kimuakekoak,

Xabier Sarasola, e.a. Km. erosleak: Udaletxea, tabernariak, Euskaltegiak, Alkartasuna Lizeoak, Institutuak, Montte eta Mendizabal, EHE, Goiztiri Aek, e.a. Ormaiztegin, lekukoeramaileak: aipagarria herrian urtebete darman eta euskaraz ikasi duen ume marrokiar bat izan zela aurrean, odolkgiletako bat, Irizarko langile bat, barduliatar eta HBtar bana. Haez gain Udaletxeak ere erosi zuen Km.ren bat.

* Oraingoz Korrikari laguntza eman dioten Udaletxeak: Ordizia, Zaldibia, Olaberria, Itsasondo, Lazkao, Arama, Segura eta Zegama. Gainontzeko batzuk kilometroak erosi dituzte. Korrika 8 Batzordeak berau antolatzen edo parte hartzen aritu diren guzti guztiak eskertu nahi ditu.

Beasaingo Abiada Handiko Euskara

Euskararen erabilera suspertzea helburu duten ekimenen artean, lan mundua ez da orain arte oso kontutan hartu izan den arloa. Irakaskuntzan, komunikabideetan, kanean edo administrazioak dituen bulegoetan euskara erabiltzeko urratsak eman ditugu, baina lanean, hau da, gure tailer edo bulegoetan, "gai serioak" ere euskaraz erabil daitezkeela eta erabili nahi ditugula ez da askotan agertzen den puntua. Baina gure bizitzan arlo hori ere irabazi beharra dugu euskaldunok, euskara gure herrian hizkuntza normala izango bada. Eta ez da txorakeria, egunero 8 ordu egiten baititugu lantokian!

Bide horretatik abiatzeko asmoa dago CAFen. Bertako Euskara Batzordeak HPINra jo zuen laguntza eske eta honen eskutik, eta enpresaren zuzendaritzaren adostasun osoarekin, CAFen, *lantokian euskara gehiago erabiltzeko plana* martxan jartzeko lehen urratsak ematen hasiak dira. Plan honek ez du enpresa osoa hartuko; oraingoz, Akaberako tailerreko 300 langilerekin abiatuko da. Planaren helburua, laneko egoera guztietan euskararen erabilera handiagotu eta sendotzea da, bai ahozko, bai idatzizko erabileretan. Hiruzpalau urteko plana izango da.

Plana arrakastatsua izan dadin

behar-beharrezkoa izango da langile bakoitzaren aldeko borondatea eta bereziki euskaldunena. Euskaldunok erabili, euskara ez dakitenek ere ikasteko motibazioa eta beharra izan dezaten. Horretarako bideak jarri behar-ko ditu planak. Dagoeneko badaude martxan horrelako planak beste enpresa batzuetan ere, baina hau da Goierriko enpresen artean lehena. Espero izatekoa da CAFen egiten diren tren dotore horien antzera, euskarak ere abiada handiz aurrera egitea bertan eta beste lantokietan.

CAFeko IV Dibisioko Euskara Azpibatzerdea

Kilometroak 93a, maiatzean loratuko da Ordizian

Martxoko alean agertu zen bezala, Kilometroak 93-ren antolakuntza hainbat batzorde lanean hasi zirenen berri eman genizuen. Hil honetakoan haietariko bizpauruen berri emango dizuegu. Dagoeneko Ordizian geroz eta biziago somatzen da jai nagusiaren aurreospakizunen prestaketen saltsa. Guraso, ikasle ohi, irakasle, laguntzaile eta abarren laguntasun eskergaitzez, aurrez izendatu ziren helburuen plangintza orokorraren epeak betetzen ari dira. Auzolangintza jatorrean, denon indarrak batuz euskararen jai nagusia prestigioa gerta dakigun.

"Atera atera, trapaak saltzera..."

Salmentetarako Batzordeak, salgaien kaleratze asmoak Apirilean bete ziren. Horrela aurrikusi eta horrela gertatu. Beraz, gaur egun, hainbat produktu desberdin hor ditugu, zein baino zein politagoak eta kalitatez ezin hobek eta guztiak Kale Nagusian zabaldu den dendan salgai. Urriak 3 arte denda iraunkor honek zabalik iraungo du: asteazkenetan 10,30etatik 12etara goizez eta 17,30etatik 19,30etara arratsalde. Osteguna, ostirala eta larunbatetan arratsaldeko 17,30etatik 19,30etara.

Baina, saltoki finko honetan bakarrik ez dira gelditzen hauen asmoak, zeren eta dagoeneko batzordekideok herrietako festak, zentru komertzial, Hiper, herri desberdinetako azokak e.a.-ekin egutegia osatu dute, Gipuzkoan zehar barreiatua. Lan ikaragarria suposatzen duen ekimena noski; eta hain zehazki prestatu duten plangintza



Kilometroak 93 denda

egi bihur dadin, direnak baino saltzaile gehiagoren beharrean aurkitzen dira. Beraz, turismo apur bat eginez eta eskualde berriak ezagutuz ibili nahi duen guztiak hemen du aukera ederra. Herriar euskalzale horri zuzentzen gaitzaizkizu. Oraindik ez da berandu, zure indarra gureaz bat egiteko. Anima zaitzez eta zatoz Kilometroak 93k Arana kalean dituen bulegoetara.

Badago zereginik

Kultura batzordeari dagokionean, azpimarratu garai honetan osaturiko bi taldeen ahalegina ez dagoela zalantzan jartzerik. Antolaturiko ekintzak ez dira berdinak, baina helburua bakarra: Kilometroak 93 arrakasta usainean murgildu dadila. Esan beharra dago, aurtengoan, aurreko urteetan antolaturiko Kilometroaketan iadanik klasiko bihurtu den hamabostaldiarekin amaitzea pentsatu dugula. Herria hobe girtzeko asmoarekin, maiatzak 2an Pregoia-ekin hasi eta urriak 3arte astebu-

ruro ekintza ezberdinak; herriko eta inguruko amansementu guztiak barru-beteko dituen antolakuntza bereziak izango dira.

Kilometroak 93ko eguna bereziki arduratuko den batzordea, lanean gogor dabil. Hauek ere zabaltasun handia erakusten dute lortu nahian. Denbora faktorea alde duten arren, egun batean bertan gauza guztiak koordinatzeko arazorekin topatzen dira. Festa eta emanaldiak hasiera doazenez, hementxean Maiatzerako antolaketak izan diren ekintzen zerrenda. Behingoz denon gustura euria egingo duelakoan gaude.

Dioni

* Maiatzak 8, larunbata: Ige-

riketako Udaberri Liga Majorin; 15a, larunbata: Rock kontzertua. EH Sukarria eta Urtz, Beti Alain; 22a, larunbata: Emakumezkoentzat Gipuzkoako Palarik txapelketako azken partiduak; 30a, igandea: Musika emanaldia, Oroitzelak Abesbatza, Barrena metal Boskotea, Soka Orkestra, Esku soinu orkestra eta Umoreona Herri Antzokian.

Aipatu ekitaldiak eta ondorengo hitzaldietan aurkeztuko ditugunetan zer den aipatu behar badugu herriko talde eta elkarten ekarpenak izan dira. Laguntza guzti honengatik gure esker ona luzatzen diegu.

Ibiliz, bidea egiten

Zirkuitoa dagoeneko albaindua dugu. Azken ikuituak eta harremanak izaten ari gara. Datorren hileko alean zehatz-mehatz ikusteko aukera izango dugu eta bide batez aurrera genezake sorpresaren bat eskeiniko dizuegula.

Kilometroak 93 Kultura Batzordea

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



JAUREGI
TOLDOAK s/n

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

Ba al dakizu...?

□Beasaingo CAFek 22 tren ibilgailu egingo ditu Mexikoko Monterreyko Metrorako, lan horren adjudikaziorako nazioarteko lehiaketa irabazi baitu. Datorren urteko maiatza eta iraila bitartean bukatu beharko ditu Goierriko konpainiak.

□Goierriko ekonomi eta industri egoeraren erakusle dira joandako apirilak 17an, ELA, LAB eta CCOO-k deituta, enpleguaren eta berrindustrializazioaren alde Beasaindik Ordiziara bitartean izandako milakako langileen (baina gazte gutxi) manifestaldia eta eskualdeko ekonomiaren motore nagusia den CAFen egoera ona. Azken honek ez du ezkututzen Goierriko industriak bizi duen krisi larria: azken hamar urteotan lanpostu gehien galdu duen eskualdea da gurea Gipuzkoan; langabezi tasa %21 edo handiagoa da, EAEko batazbestekoa bezalaxe, "Egunkaria"ko Joseba Aiarza beasaindarrak dioenez.

□Beasaingo Udalbatzak aipatu hiru sindikatuak aurkeztutako mozioa onartu zuen. GOIERRITARRAren Aldi Berria ez da onartu, berriz, oraindik eta ia-zero laguntzak proposatzen ziren. Aizuean dago gurea, eskualde mailan. Elkarriketak burutzen ari dira politikoak. Geroz eta lan eta defizit handiagoak ditugu: ahaleginetan gabiltza he-

rrietako kronikak zenbaki honetatik aurrera osatzeko, geroz eta aldizkari hobe egiteko, baina orri kopuru jakinetara mugatu behar, dirulaguntza ezean. Goierritar irakurle horiek aldizkari geroz eta hobeagoa merezi duzuen uste osoa dugu eta aurrera aterako al da gure ekimena!

□Diputazioarekin lortutako akordio baten bidez, Lazkaomendi inguruan kokatutako baserrietan 19 "hidrante" ezarri dira. Baserritarrak suaren aurka aritzeko baliatuko dira tresna hauetaz, suhiltzaileak sutea dagoen lekura iritsi artean. Orain falta den gauza bakarra, baserritarren hornigarri izango diren mangerak dira.

□Lazkaoko Areria zinemaren egoera ikusita (geroz eta itxute gehiago, proiektore zaharkituak e.a.) eta bertako jabeek gastu horiei ezin diezaioketenez aurre egin, Udalak beharrezkotzat jotzen du bertako konponketa lanei ekitea. Bertako jabetza lortzea dute lehen lana. Momentuz ez da zine-saiorik.

□Lazkaoko frontoi zaharra garbitu zenean ikusi zen frontoiak kolore beltzaz goko harriak zituela. Hasierako harri-durak argitu zirenean jakin zuten Udal arduradunek frontoian ageri ziren harri ilun horiek errebotean jokatzeko hor-

ma markatzen zutela. Lazkaon ere nonbait egiten ziren errebote partiduak udaletxe aurreko frontoian eta aurten partidu horiek nolakoak ziren erakutsi nahi izan dute, herriko festak aprobetxatuz.

□Ataun, Idiazabal, Itsasondo, Legorreta, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia eta Zegamako herri eskoletako eskola kontseiluek irakasle erdaldunen sarreara salatu dute. "Gutxienez orain arte izan dugun irakasle kopurua ez murriztea" eskatu dute eta gogoratu azken urteetan irakasle guztiak euskaldunak izan dituztela.

□Apirilaren haseran Lazkaoko protagonista izan zen EGIko festa. Bertan Arzalluzek egindako adierazpenak, CAFeko langileen komenioari buruz, izan zuten erantzunik ELA eta LABen partetik.

□Urtero bezala jende usainean ospatu dira Seguran bertako ohizko Aste Santua eta prozesioak. Hondarribia eta Azkoitikoekin batera, Gipuzkoako tradiziozkoena da.

□Egintza sozialak antolatzeko sortu zen "Kibi Giza Ekintzen Gestioa" Tolosan. Martin Arruabarrena margolari beasaindarra du sortzaileetako bat. Be-

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Fotokopiak
- Ikastolako Materialak
- Koadernaketak
- Idazteko makinak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA

ra joan da ezkontzera eta ohartu da uste dena baino konplikatuagoa dela ezkontze hori: banketerako gonbidapenak, ezkongaien bidaia... Horrelako besterik ez ikusi inguruan eta muntatu egin zuten beren enpresa: zirimonia 15 egun baino gehiago antolatu ohi izan dute zenbaitetan, presak zirela eta. Beren bezero asko eta asko goierritarrak omen dituzte.

□Apirilaren haseran Ordiziako Oian-gu baserrian aurkeztu zen Oianguko ingurugiro-eskola. Bere lehen pausuak 90 urtean eman ziren eta asteen zehar, bi eguneko egonaldiak burutzen dituzte ertainetako ikasleek bertako ostatuan. Ikasleek ingurugiroarekin zerikusirik zenbait gai jorratzen dituzte. Oianguren orain arteko esperientzia arrakastatsua izan da.

□Apirilean martxan jarri da Usurbe mendiko telebista errepikagailu berria.

Oriamendi kalean, berriz, bulego berria ireki du Diputazioko Ogasun edo Haziendak.

□Gipuzkoako Foru Aldundiak Ordiziako Rugby zelairako paraje desberdinak ikusi ditu eta San Juan auzoan kokatu daiteke biharko egunean. Bestalde, Goierri Lanbide Eskolak laster ekingo dio bere berritze lanen bigarren parteari. Obra-lanen aurrekontua 100 milioitik gorakoa da. Herri honetan kokatutako Goierriko suhiltzaileen parkea, berriz, ez da zabaldu oraindik, nahiz eta obrak bukatuta dauden.

□Aita Lasa Urbiako "artzaiei artzaia" hil zen apirileko alerako erredakzioa itxirik geneukanean. 40 urtetan eman zuen meza Urbian jaieguna eta igande guztietan. Horrez gain, ezaguna zen autoberriei bedekazioa emateagatik urteetan. Orri ugari eskaini zizkien egunkariei heriotz honi.

□Ordiziako Alotza Haur-Eskolakoek mobilizazioak eraman dituzte aurrera hilean zehar duten lokalen falta salatzeko. Duela 18 urte sortu zen Alotza eta, hasera batean tira-birak izan baziran ere, Udalak eta beste instituzio batzuk emandako diruari esker bere espazioa eta haur kopurua handituz joan da. "Instituzio publikoek haurrak eskolatzeko eskubidea ziurtatu behar dute eta pentsatzen dugu Ordiziako Udalaren zereginak zerikusi handia duela zentzu honetan", adierazi dute.

□Hilaren 18 Gipuzkoako Odolemaileen Batzar Orokorra ospatu zen Zaldibian arrakastaz. Zenbait agintari eta jendetza handia izan zen. Elkartearen arduradunek esan zutenenez, martxa ona daramate, ona eta sana da odola ematea eta plasma emaleen kopurua handitzeko asmotan dira.

ARRANO


Taberna

Ogitartekoak eta Pintxoak

Kale Nagusia, 12 Tel. 88 74 47 BEASAIN

IBAI - ONDO

ZURGINTZA HALTZARIAK P.V.C.ko LEIHOAK



Tailer eta Erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN





IRVROK

S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

TAPIZ ETA GAINEZTADURA TAILERRA



BIOK, c. b.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



BASKANA

TABERNA

Giro on eta jatorra

Tif.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11 BEASAIN

KOIOTE

TABERNA

Taberna berria eta Giro berria

Zaldizurreta kalea — Tel. 16 07 23 — BEASAIN

ATOTXAKO HARMAILETAN ERREALA ANIMATZEN BI DENBORALDI BETE

‘Peña Gorritz’: futbola bizitzeko era jator bat

Nork ez du inoiz erreparatu Atotxako ipar harmailean “Peña Gorritz” dioen pankartapean biltzen den ataundar talde

zaratsatsu honengan? Zergatik “Bixio” eta ez besteren bat? Nork sortu ote du peña hau...?

Betidanik izan dira Ataunen erreazale ugari, Goierri osoan bezalatsu. Hauetako gazte batzuk bere bihotzeko taldea zuzenean jarraitu nahiean, Donostiaraino joaten ziren hamabostero. Halakorik beste edonon gerta badaiteke ere, peña bat eratzea ez da ohizkoa Goierri behinik behin. Baina ataundar hauek txundituta utzi gintuzten 92ko otsailean Atotxan aipatutako pankartapean 20ren bat gazte bildu zituztenean.

Peña berria, unibertsala

Josu Aizpurua “Kuzu” eta Aitzol Arruabarrenarengana jo dugu eta gure galdeketa luzeari patxadaz erantzun diote. “Benoi!

Kriston luzea dek hori kontatzeko!”. Aspalditik joaten ziren koadrilakoak Atotxara eta bertan horrelako zerbaiten falta somatzen zuten. Peñaren sorreraren lehen urratsa sangregoriotar batek eman zuen ordea. “Jon Arinekin ikasten zian bat, Karlos, Gorritzen koinadua izan eta biak hitzegin dute. Koinaduak Bixiori bere izeneko peña

sortzeko asmoa komentatu eta begi onez ikusten zuela hark... Errealaren oniritzia jaso behar zen. Zerrenda bat jarri genian Troskaeta tabernan. Koadrilakoak barne, 20ren batek eman ziaten izena”.

Erantzunak animatu ditu eta iazko otsailean Errealaren kamiseta, bandera eta pankarta besapean, Atotxan zen peña berria. Gehienak ataundarrak badiugu ere, “unibertsalak gaituk: irundar, lizartzar eta lazkaotarrak ere bagaituk hemen”, dio Aitzol lazkaotarrak.

“Kanpotarren presentzia nabarmena ez badeke ere, bai garrantzitsua ordea: irundarra sortzaileetako eta ordezkaria diagu Klubaren aurrean”. 24 lagun biltzen dute egun, gazteenak 16 urte eta zaharrenak 24 dituela. Ez dago emakume bakar bat ere apuntaturik. “Baina etorri izan dituk partiduren batera eta ondo asko pasa zien”, diote ukalondoa joz beren artean. Sangregoriotar eta errenderiarrak izan behar zuten.

Gehien harritu gaituena, taldearen barruan erreazale ez direnak ere badaudela. Adib., Simpson eta Urrutxu

dintsukoak izaki. ‘Peña Imaz’ekoekin ere harreman sendoa diagu, harmaila berean baikaudek”, baina gainontzekoekin ez omen dute inongo erlaziorik. ‘Peña Mujika’ rekin liskarren bat izanda daude Aldezaharrean, partidu baten aurretik. “Ez galdetu arrazoia, ez baitzekiagu”. Hala eta guztiz ez dute hitz txarrik azkenontzat, oso jende jatorra omen, baina ba omen da pertsonai seinalaturen bat burutik oso sano ez dena. Peña horrek izen txarra hartu badu, Mujikako jendea ez baino hauen inguruko zenbait “txotxolo”ena da arazoa.

Edozein igande, Atotxan

Igande guztiak ez dira berdinak izaten. “Bi eratakoak bereiz zitezkeek: egun osorako abiatzen garenekoa (partidu “haundi” etarako) eta arratsalderakoak (arruntagoak)”. Egundako seinalatu etarako S. Martingo plazan biltzen dira 11etan. Ordiziaraino kotxez, trenez Donostira. Behin han, Alde zaharrera tragu batzuk botatzera. Zenbat tragu, ezin dute zehaztu. Ha-



Bartzelonazale amorratuak izanik Atotxara doaz; hori bai, Bartzelonakoekin jokatzeko dutenean ez diete animo handirik ematen txuriurdinei...

Ekintzak, erlazioak...

Partaide izateko peñaren kamiseta berezia erostea besterik ez da behar. 2.800 pzta balio du eta antolatzen dituzten bidaietara dohainik joateko eskubidea ematen du, kiniela bateratuak eta beste aktibitateak egiteko ere bai.

“Peña Txiki” beasaundarrarekin primeran konpontzen gaituk, adin ber-

siera batean jendea nahikoa desmadratzen bide zen alkoholarekin, baina badiudi baretu dela hori. “Igoal Cadizen kontrakoan inor ez da mozkortzen, baina Osasuna badator kriston legatza harrapatzen diagu”, segun eta noiz, nahiz hurrengo astelehena izan. “Halere ez pentsa mozkorrak garenik edo lurretik bueltaka gabiltzenik igandero”. Edaten ez duen jendea ere bada gainera.

Bazkaldu ogitartekoak, eta gustora asko. Eta kafea hartzera betiko taber-

nara, Egiako Etxabera, konfidantzaz-koak direla eta. Pankarta eta trasteak han gordetzen dituzte. Horrez gain, "porra bat ere jokatzeko diagu bertan ea nork asmatu Erreala eta Athletikaren emaitzak. Asmatzailerik ez dagoenean, diru apur hori poteatzeko erabiltzen dugu. Denok pozik". Atea ireki bezain laster sartzen dira Atotxan gorritarrak. Ez omen dute arazorik betiko tokia eskuratzeko: "Jendeak bazekik non jartzen gaizteken eta errespetatu egiten dik". Partiduaren ostean kapitalean poteatu eta Ordizian eman jarraipena hari.

Dagoeneko galerazita dago futbolzelaia edaririk edo etxafuegorik sartzea. Gorritzek golen bat lortzen duen bakoitzean, zarata handiz jasotzen dute hau bere peñakoek: "normalean oihera eta saltoekin batera abalantxak montatzen dizkiagu halakoetan", baina oraindik ez du lortu aurten golik bertan. Iaz sartu bat eta sekulakoa antolatu zuten. Ez dute aparteko kantu berezirik, betikoa, Gorritz aiatu bereziki. Galde atundarra maisu horretan, bera badoa handiak asmatzen bide ditu, espezialista tipoa! Anekdotak gisa, martxoan Erreala/Athletika aurrez aurre eta gorritzarrek hanka-sartu: "Zorionak Gorritz" pankarta kolore gorritz idatzi eta komunikabideetan islada izan zuen horrek, diote letxetxarrean.

Errelak UEFAn jokatzeko dituen aukerak gutxi direla eta gorantz begiratu behar dutela jokalariek eta ez promozioari, uste dute biek. Bixioren kalitatea epaitzen ez gara hasiko eta bere zaleok, jokalaria-balioaz gain, pertsona bezala duen balioa azpimarratu nahi izan dute. Etorkizunari buruz ezer garbirik ez badago ere, beste urtebetez txuriurdinez jantzirik ikusi nahi lukete. Beterano baten beharra beti izaten da. Pikabeak ordezkatzeko balezake ere, "Bixio, beti Bixio izango dek". Azkenaldian Peña hau moteltzen hasi ote den edo

Peñak, ultrak, eta abar

Betidanik izan da komunikabideetatik peñenganako begirune berezia. Jende jatorrek eta futbolaren maitaleek osatu dituzte hauek. Eta, gutxi gorabehera, horrelaxe jarraitzen du. Arazoa bestaldetik dator ordea: E.H.-ko mugez kanpo sorturiko ultra edo talde fanatikoen eskutik.

Azken talde hauek futbolzaleez ezik beste edozein gisako gazte jendeaz osaturik daude eta zaletuen taldeen izen ona zalantzan jartzera eraman du komunikabideen aldetik, ezjakintasuna dela medio. Bereizten jakin behar dugu: batetik, betiko peñak, futbolzaleak batzen dituen, inongo konotazio politiko edo besterik gabe. Bestetik, peña izenpean maskaraturik dauden talde politiko edo arrazazale gogaikarriak, espektakuluaz baliatzen nahi dutenak beren neurrigabeko bortxakeria eta gorrotoa azaleratzeko.

Arazoa berez nahiko larria bada ere, are larriagoa deritzot talde ultraeskuindar hauen atzean klubaren direktiboak daudenean. Adib., hor dugu behin eta berriz salatua izan den Mendoza-Ultra Surren arteko lotura.

Eta, bienbitartean, betiko peña jatorrek talde ultra hauen aurka sortu diren kanpainaren ondorio lazgarri berak jaso behar: katxeo polizial deskontrolatuak...

Ezberdintzen jakin behar dugu eta norberari bere erruak aurpegiratu, peñen izen ona berreskuratu, futbolzale guztion artean. Eta norberak gustokoen duen eran ikusi dezala futbolbola: tribunatik lasai eserita edo preferentziatik zutik, bandera eskuan izanda. Nik nahiago lehena, baina Gorritz Peñakoek zutik eta beste giro batean gustorago sentitzen dira; biak dira futbolbola ikusteko era jatorrak, zalantzarik gabe.

Beste pentsaera "faltsu" samarra, peñak drogekin lotzearena. Uste dut alkoholaren gehiegizko erabilpena ez dela peñei bakarrik egotz dakieken hutsa, baizik eta futbolera doazen gehientsuenei, zoritxarrez. Hori guztion esku dago... Gora peñak eta gora futbolbola! Azken ohar bat: talde ultrak ere Euskal Herriratuak ditugu ultraezker moztarropetan. Ez ahaztu otsoa ardiz jantzen bada ere, otso izaten jarraitzen duela... Eta otsoena ez doa atundarregatik, lasai!

jendea seriotu den ustean daude, baina emaitza onek, desmadrea ezpada ere, berriro umorea bueltatuko dielakoan. Zerbaitekin esaten zidan Erreala nagusituko zitzaioela Espāñolari. Hala izan zen: 4-1.

Zenbait galdera motz

* Aitzol, 19 urte, UBIko ikasle Beasaingo Institutuan.

* "Kuzu", 20 urte, Andoaingo Bideoeskolan ikasle. Zaletasunak: kirola, marraztea, berebilak, zinea, lagunekin irteten eta poteatzea.

--Atotxatik Anoetara aldatzean, zer

deritzozue Nacionaletatik Ertzantzara aldatzeari ere?

--Holako egurretik halako ezpala.

--Zuen ama zeuon peñan apuntatuko balitz...?

--Beno, beno! Ama desapuntarazi!

--Valentzia ala Yubero?

--Yubero, zalantzarik gabe.

--Egia ote Toshacken diktadurapean diagula Erreala?

--Botere gutxiago beharko likek.

--Zegoken lekuan ondo zegok.

--Ultra Sur ala Herri Norte?

--Herri Norte.

Juanjo Balerdi

GERRIKO TABERNA

Eguneroko bazkari eta afaria

Elosegi, 16 Tel: 88 99 43

LAZKAO

KATTALIN

ERRETEGIA - SAGARDOTEGIA

Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4, "Biona" etxea. (Polidoportibo ondoan) TEL. 88 92 52 BEASAIN

MILAKA ARRAULTZ PRODUZITZEN DIRA EGUNERO SEKTOREAN
LIDERRA DEN IDIAZABALGO "GORROTXATEGI" OILATEGIAN

Luis Gorrotxategi: "Larriena da bertakoa bailitzan saltzen dela kanpoko produktua"

200.000 oilo dituzte, egunero 160.000 arraultz jartzen dituztenak. Bi biltegi eta lau oilategi handi. Prozesu guztia Gorrotxategitarrek garatzen dute. Esitosoa izateko lan

egin eta prestaturik egon beharra dago, beste sekreturik ez da, Luis Gorrotxategi, oilategien kargudunak dioenez. Bere enpresa liderra da sektorean.

Kalitatea da giltza

Produkzioetik abiatu eta oilategien maneja, arraultzen enbasatua, kalitate-kontrolak eta banaketa. Dena beraien esku. Horrez gain, beren pentsu-fabrika dute etxerako premiak bakarrik asetzeko propio sortua. Beren neurri-rako pentsuak, granulatuak egiten dira egun. Bero tratamendu bat emanez eta elementu kutsakorrak kenduz. Lehen-gai onenekin elikatzen dituzte oiloak, hori da lehen puntua.

Ez dago beste mixteriorik. Kalitatea eta tradiziozko artesauen ahaleginak. Bertaratzen denak ikus dezake nola doazen milaka arraultz pabilioiez kanpo altxatuko zinta garraiatzaileetan. "Milaka oilo daudelako ateratzen dira milaka arraultz. Balirudike dena konputerizaturik daukagula, baina ez da hori. Automatismoak ditugu, prozesu logikoa da, baina hemen ez da japoniar oilorik, 'mikro-txip'-ik eta halakorik", dio idiazabalarrak.

Hori bai, teknologiaren eta informatikaren behar galanta daukala aitortzen du; geroz eta gehiago, ez administrazioarako soilik, baizik eta hegaztien gestioaren kontrolerako ere: kontsumoak, produkzioa (erruteen altak eta bajak), arraultzen tamainuak, kostuak... Izan ere, 280 arraultz egiten baitu oilo bakoitzak urtean.

Esneare-kin bat, arraultza izango da pertsonok dugun elikagai garrantzitsuenetakoa. Horren jakitun gara gehienok, di-tuen bitaminak direla, e.a. Egosita, frejiturik, tortilan, zerekin ez da konpatiblea? Astean hiru arraultz jan beharko

omen genituzkela diote. Arraultz ego-siak eta pasteurizatuak ere komertzial-tzen direla aipatzen digu Luisek. Jate-txeetara, erreposterirako-eta, zuzen-tzen omen dira hauek, gehiago iraun dezaketeenez.

Kontu gehiago ere atera dira eta ho-rien artean udako beroarekin gogor jotzen duen salmonelosiarena. "Ho-rrren kakoa ez dago arraultzean. Arraultzak sortzen du, baina berak ez du kulparik, beroa dela, eta egiten den



Informatikaz baliaturik kontrolatzen du gestioa Luisek

arraultzaren erabilerak baizik. Es-nearekin ez da ba gertatzen! Zergatik? Irakiten delako. Esne gordina hartuz gero bada arriskurik. Arazoa maione-sa eta esnegain altxatuarekin sortzen da, ez arraultz frejituarekin", diosku komentziturik.

Garai eta arazo berriak

Administrazioak sektore hau gutxi-txo babesten duen ustekoa da gure el-karriketatua. Gipuzkoako Oilozairen

SAIOA TABERNA

txikia baina bikaina

KALE NAGUSIA-BEASAIN-TEL.88 06 02

ERLOJUTEGIA

BITXITEGIA

GARMENDIA

Festa on batzuk opa dizkizuegu

Nagusia, 20 tel. 88 15 32 BEASAIN



da, hain zuzen. Oraintsu arte ia babes gabe egon ondoren, bi urtez gero Diputazioarekin elkarriketak euki eta zenbait arazo konpontzen ari dira batera.

Zimaurrearen prolema kasu, 95 tona zimaurre ateratzen dira "izal"go oilategietatik egunero; sanitate-kontrolak, e.a. Europarekiko homologaziorako prest egoteko eta istalakuntza berriei begira (bateria konpaktak), ingurugiro gaitan prestatu beharra dauzkate beren buruak.

Arraultzak eta arraultzak

Atzerrietatik arraultz ugari sartzen dela, jakitun da Gorrotxategi. "Neri oso ondo iruditzen zait. Joan Eroskira eta, adibidez, Txileko sagarra erosteko aukera du kontsumitzaileak. Baina jakin behar du kanpokoa dela".

Esnezalearen kontua

Oilategi hau aitak, Pedro Gorrotxategi, sortu zuen orain 35-40 urte. "San Blas" oilategia zuen Idiazabalgo Iparragirretar batekin batera. Duela 20 bat urte bereiztu ziren eta gurasoa honoko honetan geratu zen. "Limas"en egiten zuen hark lan eta gero bere "vespa"rekin partitzen zizuten arraultzak. Txitoak, oilo egin ziren,... Esnezalearen ipuina dirudi.

Geroztik bost seme-alabek eutsi izan diote aitak martxan ipini zuen erronkari, izpiritu berarekin, ekipoko lanean. 11 langile dira guztira. 3 kamioi, berrizaketak piskanaka eman dira eta azken inbertsioak orain hiru urte: bulegoa, makina klasifikatzaileak montatu, biltegi eta oilategien etengabeko zabaltzeak...

Eskaintza/eskariaren legeen ara-

bera guztiau: "hau ez da tuerkak egin eta handik 6 hilabetera saltzea; arraultzak egunerokoa behar du izan". Istalakuntza zaharrak berri- tzeraz jo dute, oilo gehiagoen bila joan ordez. Izan ere, europar merkatuak "bateria ekologiko" edo konpaktu bat montatzea esijitzen diete, halako eta holako ezagugarri hainbat dituen. Aspaldiontan horretara moldatzen arituz, istalakuntzek hobeto funtzio- natzen du.

Beren banaketa sarea Euskadiko lau probintzietara eta Santanderrera mugatzen da. Dagoeneko ez dabilta dendarik denda. Merkatal kateei saltzen dizkiete. 400-450 milioi faktu- ratzen dute urtean. Salneurriak gora- behera, oso merke ere saldu izan dute, gehiago saltzekotan. Erostun han- diek, esijitu ere bai, baina hobeto eta garaizago ordaintzen bide dute.

Beste aberriak beren produktuak promozionatzen ari direnean, hori bera hemen ez gertatzea salagarria iruditzen zaio. "Gertatzen da Holandako arraultz asko ekarri eta bertakoa balitz bezala saltzen dela. Hori da larriena. Kontsumitzaileak jakin beharko luke nongoa den arraultz hori eta saltzai- leak esan egin beharko lioke. Hori ho- rrela, halere kanpokoa gehiago sal-


duko balitz, espabilatu eta konpetitu egin beharko genuke", dio bukatzeko.

Bertako produktuak beren birtuteak gordetzen dituzte eta kalitate hobea- gokoak direnez, hor konpetitu omen dezakete.

Mikel Aramendi

Levi's

DENDA ESPEZIALDUA



S. Inazio, 1

Telefona: 88 94 09

BEASAIN

lues rothers 
BEASAIN



GOZOTEGI

iñAKi

ZALDIZURRETA, 1
Tel.: 88 22 93

BEASAIN

OINETAKOAK

O I A R B I D E

Laskurain, 12
Telf. 65 37 86
TOLOSA

San Inazio, 14
Telf. 16 04 34
BEASAIN


Beasaingo Jaien Egitaraua

(Laburtua eta behin-behinekoa)

* **21, ostirala:** 18,00etan hasiera emango zaie aurtengo jaiei. Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariekin. 18,30etan eskulanen erakusketaren inaugurazioa jubilatuko etxean. 20,30etan Loinatz eta Loinatz Txiki Abesbatzen kontzertua Parrokian. 22,30etan Mariren jaitsiera, pregoiaren irakurketa eta ondorengo danbatak Plazan.

* **22, larunbata:** 12etan Umeen danborrada. 4,30etan Txirrindulari-Eskoletako taldeen arteko erloju-kontrako lehiaketa gipuzkoarra. 19etan Koxkolar Txarangaren irteera. 22tan danborradako taldeen ibilaldia. 07,00etan Bigantxak Eskisabel Plazan. 08,30etan: Txokolate jana Bideluzen

* **23, igandea:** 10etan, XXIII Loinatzko



San Martin Nazioarteko Xake-jokaldiak, Ezkiaga Auzoko Aretoan. 12etan, Landare eta Sendabelarren erakusketa Zubimuzun. "Beasain Hiria" izeneko argazki lehiaketarako erakusketa eta sari-ematea udaletxean. 18,30etan Herri Kirolak Barrendainen. 23,00etan, Erromeria Tapia eta Leturiarekin S. Martin Plazan.

* **24, astelehena:** 9etan, Prozesioa S. Martinen Baselizara eta erromeria ondoren. 11,30: Laguntaldearen arteko futbol txapelketako partiduak "Incansables"ek alaiturik. 13etan herriko kaleetan zehar txarangak ibiliko dira. 17etan, pilota partiduak Antzizarren. 23etan, altxafuegoak Indarreko zelaian. 23,30, Dantzaldia "Egan"ekin Bideluze Plazan.

* **25, asteartea:** 10etan, Urteroko Azoka berezia Joan Iturralde parkean.



Berezitasunak:
pasteldegia,
ezkontzak,
bataioak e.a.

Nagusia, 11
Tel. 88 82 37

BEASAIN



**Ñañarri
taberna**

Txikia
baina
martxosoa

Kale Nagusia 15 BEASAIN
☎88 06 59

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

GAROISKA

LOREAK, SENDA BELARRAK
ETA DIETETIKA GAIK

Kale Nagusia, 2

☎88 40 16

BEASAIN

gaur
express
mezulariak

- * Hiri barruko bidalketa zerbitzuak
- * 3.500 kg. arteko kamioi zerbitzuak
- * Estatu osoan delegazioak


Amezleta Pl. 12. Tel. 47 24 38 Donostia
Gernikako Arbola, 3. Tel. 65 19 96 Tolosa
Nagusia, 8. Tel. 88 89 38 Beasain

11etan, umeen dantzasoka, aureskua plazan. 11,30etan eta 19,30etan bertsolariak Loinazko S. Martin plazan. 18,00etan, helduen dantzasoka udaletxe aurrean. 23,00: Dantzaldia "Oria" txarangarekin.

* **27, osteguna:** 6,30, Erretiratuen Gurea abesbatza-ren kontzertua La Sallen.

* **28, ostirala:** 20,00etan Akordeoi Orkestaren kontzertua Udaletxean. 23,00etan: "Oldarra" Miarrizteko euskal balletaren dantza ikuskizun Antzizarren.

* **29, larunbata:** 11etan Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa, Gernika pascalkuan. 12etan, Karlos Argiñanori omenaldia



Udaletxean. 16etan, plater-tiraketa "Suministros Loinaz"en aurrean. XLIV txirrindulari proba 2. mailako amateurrentzat. 23etan, XII Mozorrotuen ibilaldia, Barrendain plazatik irtenda. 00,30etan Dantzaldia "Basajaun" taldearekin.

* **30, igandea:** 9etan, Iturengo Zantantzarren esna-deia. 11etan, Kalejira Txistularien Udal Bandarekin. 11,30etan, Mont de Marsango Majoretten desfilea. 17,00etan, Beasaingo Hiria I golf txapelketa. 18,30etan Herri Kirolak Barrendain plazan. 19,30etan txotxongiloak, Joan Iturralde plazan. Beasaingo Festa onak pasa! Argazkiak: FOTOETXE

J. MUJIK HARATEGIA

K. Nagusia 16. Tf.881832
Gipuzkoa K. z/g Tf.88 08 78
ORDIZIA

Nafarroa Etor. 31
Tf.880488
BEASAIN

ZUHAIZPE

PASTELDEGIA. KAFETEGIA, IZOZKITEGIA
Festa on batzuk opa dizkizuegu

Igartza Oleta, 8
Telf.: 88 55 93

BEASAIN



- ⇒ Akupuntura eta muxibustioa
- ⇒ Naturopatia
- ⇒ Iridiologia
- ⇒ Argaltze terapiak (Lola)
- ⇒ Kirol masaia eta terapeutikoa
- ⇒ Estetizienea

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Santa Maria, 1
Tel. 88 99 77

BEASAIN



UNANUE HAURREN BOUTIKEA

Nafarroa etorbidea 2
tel. 88 71 94
BEASAIN

JELASA, S. L. Hornigaiak

Erraminta eta makineria

Nafarroa Etor. 43
BEASAIN

Tel.: 88 09 60 - 88 17 43
Faxa: 88 69 05

Ekilibristak herrian

Apirilean zehar izan dugu berri bat edo beste Beasain aldean, eta garrantzitsuenen artean koka genezake, E.H.-ko Galtza Gorri malabar elkarteak antolatuta, ospatu zen V. Estatuko Malabaristen kongresua. Apirilaren 8 eta 11 bitartean Beasaingo Antzizar Polikiroldegian egin ziren hainbat ekitaldi ezberdinetan, 360 malabaristek, beren esperientziak elkar trukatu eta gauza berriak ikasi asmoz. Bideo eta diapositiba-ikustaldiak, tailerrak eta bestelako gauzarik ere izan zen Beasaingo polikiroldegira hurbildu zirenentzat behintzat.

Parrokiako organua konponduta

Txistu eta organu-kontzertuekin ospatu zuten beasaindarrek, Andre Mari Zeruratuaren Parrokiako organoaren konponketa, apirilaren 23 eta 24ean. Bi hilabetetan zehar, etengabeko lanari ekin zioten Merklin organu hau konpondu asmoz. 1906. urte inguruan ekarri zuten Paristik organua. Beasaina iritsi zenerrako ordea, beste antzetzoki edo erakuslekuren batean edo egona dela esaten dutenez, ez zen berria izango garai hartan.

Merklin organuaren berreraikipenean lanean aritu diren tekniko batzuk adierazi dutenez, oso kalitate onez eginiko materialez osatua dago organu hau. Nahiz eta oso handia ez den, ozentasun handia lortzen du, izan ere, daukan mekanismo onak, aide kopuru handia garraiatzea ahalbidetzen baitio. Bi teklatu eta pedalier batez osatua dago, beste edozein organu arrunt baten antzera, baina bertatik iriteten den soinu gozoak bereizten du Beasaingoa. Tronpeta eta oboek duten soinu nahasketa baten antzerakoa sortzen du.

Parrokiako berreraikipen lanak bukatu ondoren, organua konpontzea besterik ez zen falta. Orain parrokiako koruaren erdialdean kokatu dute, eta hori ospatu nahian, lehen aipatu dugun bezala, 23an eta 24ean, Jose Manuel Azkue, Esteban Elizondo eta Jose Inazio Ansorena organista eta txistulari ezagunak kontzertua eskaini ziguten.

Obra-lan publikoak

Aurrekoek gain, aipagarriak diren beste hainbat berri ere badaude. Esate baterako, apirilaren 17an bukatu zela Beasaingo zinema izango denaren eraikuntza konkurtso publikoa eta, beraz, obra honek duen premia kontutan



izanik, berehala lanean hasteko asmoa azaldu dute eta 15 hilabeteren barruan zinema eraikita egoteko esperantza ere badute.

Beasaindar askoren buruetan ibili den galderarik ere izan da. Esate baterako, Jose Migel Iturriotz kalean, hau da, "mataderoaren" parean, zergaitik ezarri ote diren behin-behineko semaforo horiek. Badirudi, inguru horretan hirigintza-obra burutzen ari zirela, bidean denok ikus genitzaizkeen arrailadura batzuk agertu zirela, era hone-

tan, Oria ibaiaren ezker aldeko hormaren egonkortasuna halamoduzkoa zelarrik. Orain, arduradunen asmoa, arrailadura hauei irtenbide egokia bilatu ondoren, lehendik hasia zuten hirigintza-obraekin jarraitzea izango da.

Honez gain, ordea, beste berrikuntzarik egiteko asmorik bada Beasainen. Hilerriak aspaldi honetan agertzen duen itxura txar edo zikin hori aldatzeko asmoz, nitxoak isteko orain arte erabiltzen zuten materialaren ordeztu granitoa jarriko dute. Badirudi, era honetan, Beasaingo hilerriak ez duela orain arte bezain itxura zikinik izango. Granito materiale hau, nekez zikintzen da goroldio eta gisa horretako likenez eta, bestalde, zikintzen denean ere errez garbitzen da. Hilerriaren itxura aldatzearekin batera ordea, lurperatzearen prezioa ere garestitu egingo da. Lehen 51.000 pezeta inguru kostatzen bazen, orain, 68.000 inguru kostako da. Arteak

Notizia hauez gain, egon da apirilean zehar beste zereginik. Ortzadar Argazkilari Elkarteak antolatuta, argazkigintza hasierako ikastaroa egiteko aukera izan du jendeak eta baita ere dantza libre eta auresku-ikastaroan parte hartzeko Aurtzaka eta Ortzadar dantza-taldeek antolatuta.

Erakusketak gustokoak dituztenek, Martin Arruabarrena, Juan Txillida eta Torrelavegako "Tertulia Sago" taldearen erakusketak ikusgai izango dituzte egunotan. Lehena Aterpe tabernan eta bestea Kultur Etxeko Erakusketak Aretoan.

Ezin esan beraz, Aste Santu honetan kanpora irten ez dena nora jo ez jakin ibili denik. Seguru ez duela aspertzeko denborarik izan!

Nekane Altuna Angiozar

EROSLE HIRU

JANARI DENDA

Tlf.: 88 07 52
San Inazio, 7.

BEASAIN

foto alzuri

Kolorezko argazkien errebelatua ordu betean

Tlf.: 88 04 78 Faxes: 88 04 78
Nafarroa Etorbidea 1. BEASAIN

Euskarazko tailerren balorapena

Inkesta: Zer moduz "Jolas, Plis-Plas"en?



Igor Eskisabel (eskolaurrekoa)

"Jolas, plis-plas"-en ondo pasa dut. Pegatina, telefonoa eta koloretako gatzia egin dut. Baloian jolastu, saskibaloian!, Andre Madalen dantza, kalejiran... Lagunekin ondo. Berriz ere joango naiz, pegatina jantzita.



Sehila Isidro (5. mailakoa)

Oso ondo. 1. egunean Gregorio aguazilak ez zigun eskolako atea zabaltu eta Areson egon ginen txisteak kontatzen. Lepotik zintzilikatzeko poltsa txiki bat egin genuen, kometa, dantza eta azken egunean merienda. Berriz apuntatu?... beno, ni bai!

Josune Garcia (3. mailakoa)

Ondo! Armiarma bat egin genuen eta gatzia kolorez margotu eta pote batean sartu eta jolastu eta ni Carolen gainean jarri eta korrika irabazi egin genuen eta oparia eman ziguten! Berriz ere joango nintzateke...



Lander Hijona (5. mailakoa)

Ondo pasatu nuen. Eskulanak, merienda, dantza... Dantzan oso ondo pasatu nuen. Lagunak nahiko onak tokatu zitzaizkidan. Berriz apuntatuko nintzateke.

Horiek entzunda esan beharrik ez dago balorapen oso positiboa egiten dutela umeei. 230 ume eta 20 begirale izan dira guztira. Zorionak eta eskerrik asko arduradun izan zareten BBB eta UBiko ikasleoi!

Gurasoak euskara ikasi eta lantzen

Amaitu berria dute 67 guraso lazkaotarrek 60 ordutako ikastaroa. Beraien egokitutako ikastaro praktikoa, hainbat kultur ekintzaz osatua: umeei eskainitako jaialdiak, sagardotegian afaria... Zorionak Goiztiri, zorionak Maizpide, zorionak guraso-ikasleoi! Hona hemen ikasle baten balorapena, baina esan gehientsuenen ahotan dabilen galdera zera dela: "berriz ere antolatuko al da horrelako ikastarorik?".

len galdera zera dela: "berriz ere antolatuko al da horrelako ikastarorik?".



Izaskun Perales

Oso ondo; metodoa, andereñoa, lagunak, klaseak... dena ondo. Zerbait ikasi dut eta ikasitakoa batzutan erabiltzen dut. Ikasten jarraituko nuke, poliki-poliki, pozik!

Alimo guztioi eta ea erabiltzen dugun ikasitakoa. Lasai edo larri, euskaraz buru-belarri!

Kultur Astearen balorapena

Balorapen positiboa guztiz. Eta zerbait azpimarratzekotan, Goiherriko Euskal Eskola eta Maizpideko ikasle ohien mahainguru interesgarria (EGA titulua lortu eta euskararen lanketa guztia amaitzen al da?); III Gerriko Ikerlan Sariketako liburuen aurkezpena (piskanaka ari gara Goierriri buruzko lanez liburutegia osatzen); Antzaren Bertso-paperekin bilketa eta Ordi-ziako Bertsolari Eskolako bapateko bertso-saioa (gozoak datoz gazteak!). Alimo!

Marijoxe Madariaga

Zerain

Bada zer ikusirik Zerainen

Zeraingo herriak baditu zenbait ikuskizun eta jende dexente hurbiltzen da bertara asteburuetan. Aipatu beharrekoa da lehenik herriko plaza, bertan daudelarik Jauregia eta Eliza eraikuntza garrantzitsu bezala. Baita ere aipatu behar San Blas ermita, Petrikiloren oroigarria, XVIII. mendeko Kartzela eta XIX. mendeko Larraondoko zerrategia.

Ikuskizun hauek talde antolatu beza-

la bisitatu nahi badira, aurrez deitu beharko da telefono honetara: 801724 goizeko 10,30etatik eguerdiko 14,30etara.

Asteburuetan ikusteko ordutegi hau izango da:

Eliza: Goizean 10etatik 11etara eta arratsaldean 18etatik 19etara. **San Blas ermita:** Goizean 11etatik 12etara eta arratsaldean 17etatik 18etara. **Larraondoko zerra:** Goizeko 12eta-

tik 13etara eta arratsaldeko 16etatik 17etara. **Kartzela:** Goizean 13etatik 14etara eta arratsaldean 19etatik 20etara.

Ordu hauetan laguntzaile bat izango da. Sarrera bakarrik ikuskizun denetarako: 200 pzta.

Jesus Insausti


“Makilari” aldizkariaren berri

Oraindik ere Goierri alde honetan izango da zenbait lagun aldizkari honen berri haundirik ez duena, izan ere nahiko berria dela esan baitezakegu. 1. alea 92ko abuztuan argitaratu zen eta oraintsu atera dugu 2.a, eta honako idatzi hau, hain zuzen ere, 2. ale honi buruzko aipamena egiteko da.

“Makilari” aldizkariaren asmo eta helburua herritarrei zenbait informazio emateaz gain, une atsegin eta entretenigarria eskaintzea da eta horretarako era guztietako artikuluek baliatzen gara, beti ere herriko zenbait laguni elkarriketak egiten dizkiegularik. Honetaz gainera, eskolako haurrek ere badute bere lekua; hori izan zen hasieratik gure asmoa eta aurrerantzean argitaratuko ditugun aleetan ere asmo horri eusten ahaleginduko gara.

Hasiera batean nahiko zalantza izan genuen urtean ale bat edo bi aterako

genituen erabakitzeke, baina azkenean poliki-poliki hastea hobea zela eta, gu-



txienez bat ateratzea erabaki zen. Dena dela, inoiz 2. bat aterako bagenu ongi etorria bedi, baina oraingoz bat ateratzearekin konforme gara. Izan ere, zenbaitek pentsa dezake horrelako aldizkari bat ateratzeak ez duela lan haundirik eskatzen, baina gauzak ez dira horrela begibistakoa den bezala, herri txikia izateak baditu bere eragozpenak lantaldea osatzerakoan, eta oraingoz ezin esango dugu “Makilari” aldizkarian esku hartzen dugunok asko garenik, eta haxe izan daiteke aurrerantzean gure erronkarik haundiena, alegia, ahalik eta herritar gehienek esku har dezaten lortu, azken finean aldizkaria herritar guztiona baita, eta ondorioz herritar guztiek izan lezakete bere txokoa eta bakoitzak egin lezakeen ekarketa atsegin haundiz jasoko genuke.

Gabino Murua

Ormaiztegi

Txapeldun gazte bat herrian

Esikia gure artean gero eta gehiago ari da zabaltzen. Oso nekez bai-zik zurrizten ez duen ingurune hauetan ia ezezaguna genuen oraintsu arte, baina gauzak asko aldatu dira, eta gaur egun Ormaiztegin bertan Espainiako eski-txapeldun bat daukagu. Harkaitz Iurritak (13 urte) egin digu balentria hori. Martxoan Formigalen jokatu ziren Espainiako eski-txapelketetan jaiskera erraldoi motan 1. postua eskuratu zuen. Baina mutil honen berri zuena ez du, dena den, ustekabeen harrapatu, lehenago ere zertarako gai zen ondo erakutsita zegoen eta.

Harkaitz eskiatzen 5 urterekin hasi zen. 10 urte bete zituenean, alebinetan Espainiako txapela lortu zuen erraldoi eta slalom motetan. Gero, benjaminetan, konbinatuan Espainiako 3. izatea lortu zuen. Aurten berriz, erraldoian txapeldun dugu. Horrez kanpo Aragoi-mailan egindako makina bat lasterketa irabazi ditu. Eski denboraldian zehar, gainera, sarritan egoten da Estatuko selekzioarekin kontzentratuta. Iaz, irailetik apirila arte hilero 10 egun egoten zen. Aurten, igande eta astelehenero egon behar izan du.



Baina maila hori ez da kasualitatez lortzen. Bere gurasoak, Manolito Iurrita eta Anttoni Sarasola, ez dira alferrik herriko lehenengo eski-zaleetakoak. Eski-estazioak ireki bezain laster asteburuoro Astun aldera jotzen dute hain gogoko duten elurretan ibiltzera. Bere

anaia Hodei, adibidez, 3 urterako eski gainean moldatzen omen zen. Giro horretan hasi zen Harkaitz eski-munduan sartzen. Asteazkenean zehar eskolan, eta asteburuetan eski-ikastaroetan. Ikastaro horiek moduan lortu ahal izateko Aragoiko talde batean eman zuen izena txiki-txikitatit. Eta horregatik irteten da gaur egun Aragoiko Federazioaren izenean.

Aurtengoz, dena den, elurak joan dira eta denboraldia bukatu zaio. Beraz, garaipen berriak nahi dituenak datorrenari itxoin beharko dio. Zorionak eta zorte on, Harkaitz!

Iñaki Amundarain

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua


Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

Jairik-jai, kulturaz blai!

Goierriren sabelean aurkitzen den herri koxkor bat dugu Idiazabal, baserri eder eta etxe txukunez osaturiko herri koxkor bat. Egun, 2050 biztanle inguru bizi gara bertan eta, nahiz eta biztanle kopurua ez izan oso altua, bertakook badakigu ondo pasatzen.

Herriko Jaiak otsailean izan ohi dira, San Blas-tan hain zuzen eta, egia esan, oso festa jatorrak izan arren, urte sasoia ez da puntaenekoa. Honez gain Maiatzean ere badugu zer ospatu herrian eta eguraldi epeltseagoaz gainera.

Ba al zenekien Idiazabalen Kultur Astea ospatzen dugula? Eta maiatzaren 14tik 21era bertako ekintzetara hurbil zaitezkeela? Zerbait entzungo zenuen, ezta? Noski, oso aste borobila izan ohi bait da. Asteburu horretan hain zuzen, Bergarako "Taun-taun" taldeak "Taun Taun Show" antzezlanarekin eskeintzen digu; bestalde Bertso, Kopla eta Olerki idatziak ere entzuteko aukera izango dugu afari xamur horietako baten ondoren.



Albitxura Igoera ere puri-purian dago, herriko txirrindulari hoberenak hor ari dira jo eta su Espainiako Itzulia utzi eta buru belarri Albitxuko igoerarako guztia emanez... Aste barruan berriz, hitzaldirik ez da faltako: Joxerra Gartzia izango dugu gurekin, liburuek zer eskeintzen duten, e.a.-en berri emanez. Eta igande partean artisauek eta liburu erakusketa bat egingo da herriko plazan talo bero-beroez lagundurik. Kulturaste honek ingurugiroa hartuko du biapuntu gisa eta gai honen inguruan ospatuko dira ekintza gehienak.

Honez gain, bada gure herrian beste

inguruko hamaikatzotan bezala Liburutegi koxkor bat. Bertako irakurleen gehienak haurrak dira eta Idiazabalgo herriak Liburutegiari bultzadaxo bat emateko asmoz Aste Kultural honen inguruan "Apaletik eskura, har liburua" kanpaina antolatuko du. Guzti honen antolaketa Kultura Komixioaren eskutik joan da, baina eskolako haurrek ere izango dute partaidetzarik.

Gainontzean, Kale Nagusiko espaloi berritze

lanak aurrera doazela aipatu. Bi aldeetako espaloiak berritu ezezik azpiegiturak ere berrituko dira, ur saneamendua, besteak beste. Obrak dirauten bitartean zenbait eragozpen jasan beharrean aurkituko gara, baina, Udaletxetik jakin erazi denez, oztopo eta arazo ahalik eta gutxien izan daitezzen saiatuko omen dira.

Era honetan isildu gabe arituko ginateke Idiazabalgo zahar eta berriei buruz, baina hurrengo hilabetearen ere elkartuko gara. Beraz, ongi pasa eta hurrenarte!

Zirika Irratiko Taldea

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Mariaratz, 4

20200 BEASAIN

: 88 86 84

Urdaneta, 68

20240 ORDIZIA



SOLOZABAL **L**
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA

GOIERRIKO ZURAK, S.L.

Inportazioko zur-biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

20210 LAZKAO

IRAUTI KIRONAK

Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO

SEGURAR PELOTARIAK BINAKAKO TXAPEL OFIZIALA LORTU DU

Alustiza: "Istorialean gu azalduko gara txapeldun eta horrek balio du"

31 urteko segurar honek pelotari profesionala izateaz gain, goizez ordu batzuk lan egiten ditu Ordiziako seguru etxe batean. Hainbat eta hainbat urtetan punta puntako

pelotari izan arren betiko lagunekin, beti bezalaxe izaten jarraitzen du. Goierritarraren galderei ere jator erantzun die Martin Alustizak.

GOIERRITARRA.- Binakakoa zure lehenengo txapela izan al da?


Martn Alustiza.- Profesionalen bigarren mailako eskuz-
eskukoa irabazi nuen, gero lehen mailan bi aldiz txapel-
dunorde binakakoan, aurtan hi-
rugarren finala jokatu eta txape-
la lortu dut.

G.- Betiko enpresek ez parte hartzean lehiaketa debaluatu egin da, meritu gutxiago al du garaipenak?

M. A.- Txapel bat irabaztea beti da meritu. Hala ere Retegi, Galarza, Zezeaga eta hauek ez egoteak kategori pixka bat kentzen dio edo zerbait falta zaiola dirudi. Txapelketa horrela antolatu da baina hala ere finalera iritsi eta irabazteak ilusio eta moral haundia ematen du. Momentu garrantzitsu bat izan da, enpresen arteko gora beherak egon dira eta Asegarge-kook federazioak antolatutako txapelketa ofiziala jokatu dugu, nik uste dut hemendik 20 edo 40 urtetara istorialean Alustiza-Maiz azalduko direla eta horrek balio du.

G.- Zuk beti defendatzaile fama izan duzu, Maizek zer esanik ez. Defendatuz irabazi daiteke edo atakatu behar denean atakatzen ere badakizue?

M. A.- Pelotari batzuri, bolezatzaile onak direla eta erasotzaile fama ematen diote, neri berriz anka onak ditudala eta defentsan ondo ibiltzen naizenez fama hori jarri didate. Maiz berriz oso pelotari segurua da. Dena den, lehenbiziko pelotan ikasi egin behar da eta hori defendituz eta "buena" eginez lortzen da, atakea eta tanto egitea gero etortzen



da. Guk demostratu dugu defentsan nahiko ondo ibiltzen garela baina atakerako momentua ikusten dugunean bestee bezala aprobetxatzen dugula.

Ni neroni gustora nago orain dar madan kanpainarekin, uste dut defentsan lehen bezala jarraitzen dudala eta atakean ere tanto onak egiten ditudala. Gauza guztiak bezala landu eta entrenatuz hobetzen saiatu behar da.

G.- Datorren urtean txapelketa bateratu bat irabaztera?

M. A.- Nik uste aurtengo binakakoan bezala enpresak konpondu edo bide batera ailegatu behar direla denak hortik joateko, honetan federazioak lan haundia egin behar du. Irabazteko berriz esperantza osoa, baino urruti dago, lehenengo hau ospatu behar dugu. Gero udaran partidu asko jolasten dugu eta oraindik ez da horretaz pentsatzeko momentua.

G.- Banakakoan Zezeaga errez menderatu zenuen, Belokirekin berriz ezin.

M. A.- Beldur ikaragarria nuen, 6 urte neramatzen eskuz-esku jolastu gabe. Enpresa berriak bultzatuta apuntatu nintzen eta esperientzi polita izan da. Lehen partiduan Zezeagaren beldur nintzen, Joxe Mari binakako txapelketan ia atzelari onena izanda oso momentu onean bait zegoen. Gero frontoian nik oso ondo jolastu nuen, berak berriz nahiko gaizki eta uste baino askoz ere errezago irabazi nion.

Belokirekin berriz partidua-
ren lehenengo zatian nahiko
ondo eutsi nion baino gero bere
eskubiko besoa soltatzan hasi
zen. Ikaragarritzko pelotazoak
jotzen zituen eta ni berriz seitik, zazpi-
tik boleaz joz, handik ezin da milagro-
rik egin.

G.- Zu Asegarge enpresa berrian zaude. Zer eskeintzen dizue honek betiko enpresak utzi eta bertara joateko?

M. A.- Lehendabizi eskeini ziguna fitxa bat izan zen, pelotari eta kirolari guztiok beti atzetik ibili garena. Lesio bat izan eta bi hilabetetan ezin baduzu jolastu, gutxienez hori kobratzea. Pelotariok haseran ez genuen sinesten, orainarte partidu bakoitzeko kobratzen ibili bait gara. Gauzak erabat aldatu dira, kondizio onak eskeintzen ditu, fitxa oso ona, seguridade soziala eta abar. Dirua baina gehiago seguridadea da, gehienok horrek bultzatu gaitu.

Aurretik, ondo ibili ezker kobratzen genuen baina adibidez eskuetatik gaizki ibili eta 15-20 egunean behin

bakarrrik jolastu, beste egunetan ez zen ezer kobratzen. Erretiratu beharra izan ezkerro berriz omenaldia egiten zizuten eta han bildutako dirua jaso, hori nahi-ko tristea da profesional batentzat. Alde horretatik diferentzia haundia dago.

G.- Asegarce-rekin gehien Euskal Herritik kanpo jolasten duzue.

M. A.- Haseran frontoi garrantzitsuenak betiko enpresek zeuzkaten, honegaitik Gazteizen eta Errioxa aldean jolasten hasi ginen. Denborarekin hemen gehiago jolastuko dugu. Adibidez, Tolosako frontoia berehala aterako da subastan eta gehien eskeintzen duenarentzat izango da.

G.- Betiko enpresak aldatzen joango al dira?

M. A.- Lehengo gauzak pixka bat alde batera utzi behar dira. Lehen diru iturriak bi ziren: sarrerak eta apustuak. Orain ere jendea joaten da frontoiera eta dirua jokatzen da, baina pixkabat atzeratuta geratu da. Oraingo kirol denak telebistatik bizi dira eta pelotarena futbol edo ziklismoarena baino askoz mundu txikiagoa izan arren hortik joan behar da. Asegarce-k bide hori hartu du eta besteek ere horrela egingo beharko dute. Hor dago pelotaren etorkizuna.

Kirol denetan bezala txapelketa eta torneoak dira jendea mugitzen dutenak, festibal normalak ez du hainbat jende eramaten. Konpetizioa da bidea apustua baino gehiago, apustuarekin

pelotariak presionatuegi jalasten du, batzuetan ez da joku bistosoia egitera ausartzen eta hori pelotaren kalterako da.

G.- Aurrera begira ze asmo dituzu?

M. A.- Asmoa orainarte bezela jarraitzea da, erretiratzea oraindik ez zait burutik pasa ere egin, urte guztian partiduak jolasten ditugu eta preparatu, ez dago beste sekreturik. Udan partiduak jokatu eta udazken aldera txapelketak hasten direnean hartarako prestatu, hau momentu ezberdina izaten da. Beti ere eskuak zainduz, oso garrantzitsua bait da.

G.- Eskuekin arazorik izaten al duzu?

M. A.- Ez, orain arte zorte haundia izan dut, 13 urte egingo ditut uztalean debutatu nuenetik eta harrezkero ez dut uste partidu bat suspenditu dudarik eskuengatik.

G.- Ze entrenamentu mota egiten duzu?

M. A.- Egunero egiten dut zer bait, asteazkenetan frontoian nahiko saio fuertea, beste egunetan fisiko piskabat, ordu t'erdi inguru, estiramenduak, gimnasia, korrika eta serieak. Entrenamentu mailan aldaketak eman badira ere, pelota oraindik atzeratua dago, ez da talde kirol bat eta bakarka entrenatu behar da. Hori izan da arazoa, bakoitza bere aldetik ibili garela.

G.- Pelotari gazteak sortzen ari direla dirudi.

M. A.- Pelota mundua orain baino okerrago egon da, orain Eugi eta Beloki bi promesa gazte dira, idolo antzekoak bihurtuz, gazteagoak fijatu egiten dira nola jokatzen duten eta hori ona da. Gazteak badabiltza pelotan, nik Seguran bertan ikusten dut, arazoa betikoa da 15-16 urtetara iristean eskuetako arazoak hasten dira eta askok atzera egiten dute. Nahiko gustora egon behar degu daukagun momentuarekin.

Telebistan inoiz baino partidu gehiago ematen dira, Ikaspilota lan haundia ari da egiten eta guzti horrek eragina du. Haurrekin lan asko egin behar da, pelota goxo goxoak jarri motikoak minik ez hartu eta disfrutatzeko. Gu harri koskorrek bezala "klas klas" egiten duten pelotekin ibili izan gara, motikoek horrekin atzera egiten dute.

G.- Orain Seguran Imaz dator pelotari ona. Egunen batean Alustiza-Imaz txapeldun?

M. A.- 18 urtetako mutil hau atzelari sendo bat da, gaur egun Gipuzkoan dagoen hobentxoena. Denbora asko aurretik igo eta gurekin jolasteko moduan izango da. Eta egunen batean txapeldun zergatik ez? Beti txapelaren bila joan behar da.

Mikel Albisu

ITAKA PUB

Arratsaldeko 6etatik goizalderarte

Zaldizurreta, 3. 16 03 40 Tlf.
BEASAIN

Karta bereziaz
gain,
bertako
babarrunak



eta ehizea,
bere
garaian
enkarguz

Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 88 85 11

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

BEROGAS

SUKALDEKO ALTZARIAK-ELEKTROGAILUAK

P.San Francisco, 10 - TOLOSA
Tfnoa: 65 33 07 - 73



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)

Ganbora, Eneriotik zergatik ez?


Ganbo 1.412 metroekin Gipuzkoako Aralarren dagoen mendi altuena da eta horrexegatik bista ikusgarriak dituena. Aralar guztia ikusteaz gain inguruko eta eguraldi onarekin urrutiko mendi ugari ikus litezke bertatik (adibidez: Pirineoak, Moncayo,... baita itxasoa ere). Arruntena Larraiztik igotzea bada ere, jende gutxiago ibiltzen den lekutik igotzeko bidea da honakoa, Ataundik, Eneriotik barna.

Lan honen helburua ez da Aralarren ibili gabeko jendeari igoera bat erakustea, horretarako bide ezagunago edo errezagoak bait daude. Batez ere betiko bideetatik eta betiko lekuetan ibiltzen den jendearentzat izan liteke. Igoerak ez du bide jakin bat jarraitzen eta horrexegatik hobe da hitzez hitz ez jarraitzea, baizik eta oinarri bezala harturik betiko bideak alde batera utzi eta Aralarren barneratzea. Biderik ezean erreferentzi puntuak ikusi ahal izateko, beharrezkoa da ibilaldi hau egiteko orduan eguraldi onarekin abiatzea.

Autoa Aralegiko lepoan uzten dugu, bertara iristeko Ataungo kanteratik gora jarraitu behar da, ezkerrean ormi-goizko bide bat hartu eta Aralegi baserritik aurreraxeago Lazkaoetik, Kobaditik datorren bidearekin gurutzatzen den lekua da. Aurrerago ere autoz jarraitu daiteke baina, bertan utziz gero zure autoaren mekanikak eta mendiko lasaitasunak eskertuko dizu. Erreka

Beltzen hiru bala zulorekin dagoen letreroak dioen bezala:

“Zaratari ihesi
aldegin dugunak
hemen ditugu mendi
garbi eta legunak
utzi autoak behean
ekin oinez jaunak
luzaro iraun dadin
gure osasunak”



Pistatik oinez jarraituta, lehenik Intxaustiko iturria dago, hemen kantin-plora betetzea ondo etorriko da. Bertan Ataun eta Lazkao banatzen dituen langa dago, aurrerago Mankomunitateko lurak hasten direla adierazten digun langa, gaur egun bertatik aurrera autoz pasatzea debekatuta dago. Hortik berehala heltzen gara Erreka Beltzera (35 minutu), bertan pistatik erreka bat pasatzen da eta ezkerrean jarraituta Aralar sulfatatzeke egin zuten aerodromotik igotzen da Oidui eta Enerio Aldera. Oinez joateko Erreka Beltzen eskuinetik gora, belarretatik, igo daiteke ae-

rodromo gainkalderarte. Aurrerago, pista Enerioko txabolara jeixten hasten denean (55 min.) ezkerreko belardia gora zuzen igo behar da, biderik gabe, berehala (ordu 1 eta 10 min) Zerragoe-nako trikuharrira iritsi arte.

Bista ederrak azaltzen hasten diren puntu honetan goraka egin berria den pista bat dago, bertatik gora jarraitu eta eskuinean garaian batean txabola bat zegoen lekua azaltzen da (ordu 1, 25 min.). Ezkerretik altuera hartu eta gero

eskuineruntz mendiaren malda zeharkatuz jarraitzen da aurrean harkaitz baten gainean ikusten den baserri itxurako buzoi bat erreferentzi bezala hartuta. Harkaitz honetatik (ordu 1, 45 min) paisaia ederra ikusten da, Igaratza ezkerretara, Lareoko urtegia parean eta aurrerago San Donato, Lizarraga, Urbasa, Haizkorri eta abar abaniku bat bezala zabaldua. Hemendik aldapan zeharka segiz

arkaitz artetik joan behar da, eskuinera behean txabola batzuk daude. Berehala ezkerrean harkaitzezko orma bat ageri da (ordu 1, 55 min.), ormaren azpitik jarraitu eta bizkar batera igotzen gara (2 ordu, 10 min.).

Pare parean azaltzen den mendi handiena da Ganbo, azpian berriz Alotzatik Igaratzara doan bidea geratzen da. Mendi gainera edozein lekutatik igo daiteke, adibidez eskuinetik Ganbo eta Pardarri tartetik, beti goraka joanez 1.412 metrotako gailurreraino (2 ordu, 40 min). Bertan indarrak errekuperatu eta bista zoragarriak ikusiz lasai egotea

**Kirol jantzieta
espezialistak**

Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18



20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

URBITARTE SAGARDOTEGIA

*Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik
asteburuetan, betiko sukaldaritzarekin

*Enkarguak: 88 83 31


*ERGOIENA AUZOA Tlf: 88 27 19
ATAUN



besterik ez dago.

Beheraka abiatu eta Alotzatik Igaratzarako bidera iristean, gorakoan pasatutako harkaitzak baino ezkererago zelai bat ikusten da, hemen beheko txaboletara ura eramateko lurperatuta doan hodiaren markak jarraituz, lehen beheran utzi ditugun txabola hauetara iristen gara (3 ordu, 10 min.). Hemen-dik zuzen-zuzen behera jeitsi daiteke harkaitz tartean, biderik ez dago eta eroso ez den arren kontu piskabatekin erraz jeisten da. Berehala (3 ordu, 25 min.) Eneriotik Igaratzara doan bidera ailegatzen gara, minak baino behera-erago.

Bide hau eskuineruntz jarraitu eta Enerioko txabolara iristen gara (3 ordu, 50 min.). Hemen gorakoan jarraitutako pistatik jeitsi gintezke edo aldatzeko beheraka Baiarrate eta Lareo aldera doan bidea hartu, Haitzalde iturria (4 ordu) pasa eta berehala basoa hasten



Parean haundiena Ganbo

denean eskuinean behera bidexka bat hartu. Erreka pasata beheko bidera iristean eskuinera hartzen da Napar iturritik Erreka Beltzera iristeko (4 ordu, 10 min.). Ondoren pistaz autoraino (4 ordu, 45 min.) joanez bukatuko dugu ibilaldi eder hau.

Harri askoko bidea suertatzen da, batzuetan nahiko zakarra baina egitea merezi duena, gero honi bakoitzak nahi dituen aldaketak egin ditzaioke, adibidez ibilaldia hasteko lekua aukeratu: Lareotik, Lazkaomenditik (Kobaditik barna), jeistekoan Igaratzatik bueltan, norberak bere gustora.

Hemen azaltzen diren denborak berriz, erreferentzi bat besterik ez dira, erritmo lasai batean ibilita eginikoak, batzuentzat azkar izango da eta besteentzat berriz geldia, norberak bere gustora egin dezala.

Mikel Albisu

BI lerrotan

□Ikusmin haundia sortu zuen. Joxe Aierbe ataundar aizkolari eta korrikalari ezagunak hilaren 18an Tolosako zezen-plazan inork uste baino denbora gutxiago behar izan zuen orain 16 urte egindako proba bera egiteko. Kanaerdiko 20 pago-enbor erdibitu eta 20 km. korrika egin zituen, 2 ordu, 15 min. eta 7 seg.-etan utzi zuen marka. Duela 16 urte baino 5 min. gehiago behar izan zituen. Bere buruarekin lehian aritu da 50 urteko gizona eta ez da makala egin duen lana!

□Zaldibian Euskal Herrian osatu nahi den txirrindulari ekipoari buruzko mahai-inguru bat osatu zaharra ere ez da. Bertan Ramon Etxezarreta, Perurena, Nazabal, M.M. Lasa, Jokin, Aitor, e.a. izan ziren. Denek ere ondo

irizten diote proiektuari baina nahiko pesimistak azaldu omen ziren.

□Aitzgorri Mendizale Elkarteak sari bat jaso du Diputaziotik bidetxurak markatu eta mendiko zonaldeak garbitzeagatik. Inguruotako mendien kartografi-ikerketak ere aurkeztu dute horrekin batera.

□Euskadiko Txirrindulari Eskolen txapelketa Beasainen ospatuko da. Loinaz Tx.E.-ak antolatzen duen proba honen fetxa jakitear gaude.

□Ordizia K.E.-ko igerilariek gutxieneko markak egin dituzte datorren udan Gipuzkoa eta Euskadiko igeriketa txapelketetan parte hartzeko. Bestalde, "Argi Txuri elektrizitatea" txi-

rrindulari taldeak gipuzkoar errepi-deetan korritzeari ekin dio.

□Oraingo Beasaingo futbol taldeko jokalaririk erregularrena izaten jarraitzen du Iñaki Eskisabelek.

□Ordiziako saskibaloia 1. taldeak bere kategoriari eusten dio Iraurgi azpeitiar taldea garaitu ondoren. Garaipen honekin 2. mailan jarraitzea lortu dute Juanan Sarasolaren mutilek. Beasaingo helduen taldeak berriz ez dio eutsi bere mailari.

□Iker Sukia ataundarrak Gipuzkoako errekor berria jarri zuen hilaren hasieran pisu jaurtiketean aide librean. 15,24 m.- tara bidali zuen pisua.

Urkiola
Errelegia

NAGUSIA,7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

ZAZPI TABERNA

Andra Mari, 5 • Tfnoa: 88 69 13 • BEASAIN

□Tinta-putzu ederrak isuri dira Lazkao Txiki bertsolariaren heriotzaurrenean. Euskaldunok ahaztuko ez dugun bertsolariak, hilezko bihurtu dezaketen ahapaldiak utzi dizkigu. Azken agurrik beroena jaso zuen eta milaka lagun, malkoak eta bertsoak izan ziren elizkizunetan. Komiko xelebrea baino askoz gehiago, maixu imitagarritzat jo dute eta bere gizatasuna goraipatu dute.

□Titular destakatuak prentsan baita ere: Jose Luis Arriola Beasaingo alkateta eta Arantxa Aseginolaza herri bereko kultura zinegotzia Cervantes saria jaso zuen Dulce Maria Loynaz idazle kubatarrarekin bildu ziren Madrilén. Beasaingo sustraiak (Loinazko San Martinen familitik sortua dugu) dituen Loynazek "Beasain festivo" aldizkarian argitara zituen zenbait poesia-lan 1947tik 1973 bitartean. Idazleak beti izan du gogoan Beasain, bere arbasoen herria. 1950ean bixitatu gintuen.

□Hona hemen Kilometroak 93eko batzordeak eta bakoitzeko koordinatzaileak. Iraunkorra eta publizitatea: Antton Amundarain; ekonomia: Pedro Irastorza; trafiko-aparkalekuak: Esteban Eskoriaya; kultura: Mikel Oiartzabal; tabernak: Julian Ormaetxea; erosketak eta bazkaria: Juanito Rubio; zirkuitoa: Pablo Markiegi; salmentak: Juanita Amundarain eta muntaia: Juan Barandiaran. Bestalde, aipagarria da CAFek bere aparkamendu guztiak zeditu (barne eta kanpokoak) eta bere goarda eta langileak jarri dituela Kilometroak 93en disposizioan. Jarrera ezin hobea, eskertzeko modukoa CAFeko Zuzendaritzarena!

□Txalaparta eta albako eguzki bana marraztu ditu Olga Madina ordiziarrek euskara eta ikastolen festa den Kilometroak 93ko logotipoan. Jakintza Ikastolarentzako logotipoa bilatzeko

lehiaketa ere berak irabazi du. Iaz bukatu zituen Arte Ederretako ikasketak Leioan eta, erakusketak egiteaz gain, euskara ikasten ari da euskaltegian. Aspalditxotik "agindua" dauka inguruan dituen euskaldunei euskaraz egin diezaiotela.

□Liburu berri eta interesgarria argitaratu du Kutzak. "El retablo barroco en el Goierri" deritza. Liburu hau Goierri eskualdean dugun arte-ondarearen elementurik inportanteenetako baten ikerlan xehetua da.

□Lazkaoko Gerriko Ikerlan-Sariketarako aurrera darrai: 3. sariketara aurkeztutako lanekin bi liburu argitaratu berriak: "Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)", eta "Goierriko biztanleria". 4. sariketara lau lan aurkeztu dira, epaimahaia lanean ari da eta erabakia maiatzaren 28an jakin ezarziko da. Lanen izenburuak: "Klaudio Otaegi (1836-1890)", "Etorkinak eta euskara Lazkaon (1986)", "Migrazio-mugimenduak Olaberrian" eta "Euskal Etnia barrendatzaile, Ataungo aurrehistoriatik interpretazio ekimenean, Joxemiel".

□Puntako bertso saioa entzun zuten hilaren 17an Segurako pilotalekuan bidu ziren 1.000tik gora bertsozaleek. Oso ondo hasi zen saioa eta hasierako maila altu horri eutsi zion amaierara arte.

□10 urte bete berri ditu "Lazkao Abesbatza"k. Lehen agerraldia egin zuenetik A. Jabier Irastortza beneditarraren zuzendaritzapean egon ohi da eta ikusi eta entzun egin behar da nola abesten duten, Zorion Mujikak dioskunez.

□Dantzaldietatik bizitzeko geroz eta aukera gehiago dute "Drindots" musika

ka talde goierritarrekoek. Iaz 120 dantzaldi eman zituzten eta aurtengo zifra horretara helduko diren ustea dute. "1. diskoa grabatu genuenean bagenekien Maritxu kantak arrakasta izango zuela, baina ez genuen uste hainbestearinokoa izango zenik", dio Jon Urdangarriek. Udarako kalean izango dute beren 2. diskoa.

Korrikako bertso jaialdi bizia

"Korrika"-ren barnean Bertso-jaialdi eder bat ospatu zen joandako martxoak 27an Ordizian. Andoni Egaña, Iñaki Murua, Xabier Euskitze, Unai Iturriaga, Sebastian Lizaso eta Jon Maia izan genituen bertsolari lanetan.


Jaialdiak ikusmira haundia sortu zuen. Honen lekuko, Herri Antzokiak erakutsi zuen betea, jende asko sartu gabe geratu behar izan zen.

Saioari dagokionez, bertsolariak orokorrean erakutsi zuten maila altua aipatuko genuke. Gaiek luzimendurako aukera eman zuten; honela aipa genitzake Euskitzek gerora hildako Lazkao Txiki zenari kantatu zizkion bertsoak, honen gizontasun eta garrantzia goraipatuz. Baita ere Iñaki Muruak kantatu zituen bertso "erromantikoak", deklaratu zitzaion ikasleari zuzenduak.

Gainerantzekoan, esan daiteke nahiko erritmo ona eraman zela saioan, beste gainontzeko gaiek humorezko kutsua agertu zuten, erreibindikazioenaz gain; alor honetan Jon Maiak kantatu zituen bertsoak apuntatu behar, Bilboko Gaztetxeke eskeletoa irudikatuz eginak.

Saioaren amaiera ere benetan bizia izan zen, Sebastian Lizasok ezik beste bostek puntutan amaitu zuten, ikuslearen gusturako oso bertso onak entzun zirelarik. Saioa bertsolarien agurrarekin amaitu zen, Korrikan parte-hartzeko eskaera egin zutela.

Igor Euren





MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

JENDEAK ONDO PASA DEZAN, POZA EMATEA DA BEREN ASMOA

Beasaingo "Koxkola" Txaranga

80. urte ingurukoa da Beasaingo "Koxkola" Txaranga. Hasiera batetan, ongi pasatzeko helburuarekin, Arana kaleko jaietan hasi ziren jotzen bat edo beste. Gero pixkanaka-pixkanaka beste batzuk joan zaizkio batzen talde txiki honi, azkenik bi urteren buruan edo 20en bat inguratuz. "Gure ideia garai hartan, Beasaingo Banda osatzea zen", adierazi digu taldean hasieratik dagoenetariko batek.

Tronboijole baten beharrean

Martin Irizar musikari zena izan zen txaranga honen sortzaileetarikoa bat, tronboijolea berau; nolabait zuzendaria ere izan zen gainera, berak idazten baitzituen txarangako abestiak. Zoriturrez ordea, badakizue txirrinduan zihola nola kotxe batek harrapatuta hil zen. Ordutik bere falta izugarri nabaritu da Beasaingo txarangaren. GOIERRI-TARRAko lerrootaz baliatu nahi izan dute Martini agur bat bidaltzeko.

"Musikook ongi pasatzean jendea kutsatzen dugu"

Zarauzko mutil bat etortzen zaie ahal duenean behintzat bonbardino jozte, baina beti ezin izaten duenez, tronboijole edo bonbardinojole bat ongi etorriko litzaiekela adierazi digute. Goierri edo inguruko inork instrumentu hauetariko bat jotzen baleki, edo entsaiatzeko gogorik balu, txaranga honetan gusto askora hartuko dutela, behintzat jakinaren gainean zaudete.

Bestalde, Txarangaren kontura, ongi eta gaizki, biak pasa izan omen dituzte. "Jendeak gutaz daukan kontzeptua, umeez baino hobeto pasatzen dugula



Dozena inguru lagunek osatzen dute "Koxkola". Perkusioan Julio, eta Peio danborra-ekin; bonboa jotzen Txumi; txapatan: Eduardo; tronpetan: Fosfo eta Ratxuli; Julen, berriz, bonbardinoan; Txistu tronboia joz eta Peio bonbardinoan; Irune klarinetearekin eta Txutxi saxofoiarekin. Harremanak: 88 09 77, Iñaki.

da, inork baino hobeto pasatzen dugula festetan, eta beti ez da horrela gertatzen, baina gu saiatzen gara horretan noski", adierazi digute partaideek. Oso lan gogorra da taldean jotzea, askok beste lanen batetan ere iharduten dutenez, denbora dexente kentzen die txarangak. Baina kontutan hartu behar da, denak ere oso gustoko dutelako aritzen direla. Kexu dira bestalde, Udalaren laguntza ezaz. Lokal pribatuetan egin behar izaten dituzte beren entsaioak.

Tolosako Iñauterietako musika oinarritzat

Gipuzkoako txarangak izan ohi dira izen gehiena dutenak. Goierri bestalde, oso errepertorio ona daukate, Tolosako ihauterietako musikan oinarritzen direlako. Alde honetatik, txaranga konpetentea daukatela uste dute.

Balentziaraino iritsi badira ere, ba-

tez ere Goierriko herrietako jaien inguruan ibiltzen dira. Hauez gain, ekitaldi zehatz batzuek edukitzen dituzte, hala nola, Arabako Alegrin, Donostian abuztuan 31an, erregenetan eta antzerakoetan.

Festa bakoitzean anekdota bat baino gehiago izaten dituzte, baina kuriosoenak, Dulantzin gertatu zitzaizkien, patatak nahasteko erabiltzen den eskabadora horietako baten palaren barruan "Koxkola"ko denak sartu, eta bildur piska batekin bederen, baino beren abestiak jo zituztenean.

"Gure asmoa ondo pasatzea da, gehiago saiatzen gara gure artean ongi eraman eta jotzen dugun gutxia gustora jotzen" adierazi digu koxkolatarrak, eta denak ere ados egon dira horrekin.

Jarrai dezatela bada orain artean azaldu diguten humore horrekin!

Nekane Altuna

Bodegon
GOIERRI
JATETXEA

Kale Nagusia, 20

Tel. 88 00 00

BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarrazteaz - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70
BEASAIN

Ordiziako "Beti Argi" Banda

Ordiziako "Beti Argi" Bandaren sorrera 1980 urtearen inguruan kokatzen da Ana Lekuona, bere zuzendariaren esanetan. Txistu taldeko zenbait kideei bururatu zitzaizen ideia eta bakoitzak bere aldetik, gustokoen zuen instrumentua aukeratu eta lantzen hasi zen.

Handik aurrera ikasketa serioak egiten hasi ziren gure musikariak, batzuk Beasainen eta beste batzuk Donostiako Kontserbatorioan, irakasle baten laguntzarekin oraingo honetan. Garai hartan 30 kide inguru ziren, eta nahiz eta gehienak txistu taldekoak izan, kanpoko jendea ere baze- goen Bandan.

"Bandak zaharrentzako gauza diren irudia ez da benetakoa"

Beti Argik, bere haseretan Ordizia-ko Udalaren laguntza jaso izan zuen. Alde batetik, orain dela 30 urte zegoen beste Bandaren instrumentuak eman zitzaizkien. "Istrumentu hauek Udaltxeko ganbaran zeuden, eta nahiko zaharrak izan arren, hasieran ikasteko oso ondo etorri zitzaizkigun. Gaur egun ere hor daude, baina ez ditugu iadanik erabiltzen. Banda zahararen armarioa ere ekarri genuen eta gorde- tzen dugu baita ere".

Bestalde, Udalak 340.000 pta eman zizkien instrumentuak erosi ahal izateko. "Diru hau mailegu modura eman ziguten eta, honen truk, urte batzuetan



Ordiziako jaietan jotzeko konprometua hartu genuen guk". Gaur egun antzeko egoeran aurkitzen dira, urtero urtero Udalarekin kontratu bat sinatzen dute, diru kopuru bat jasotzen dute eta Beti Argik zenbait egun berezietan bere emanaldia eskeintzen du. Ez dute subentziorik eskatzen.

Ordiziako Bandako partaide edonor izan daiteke, baina noski, jo nahi duen instrumentarekin bi edo hiru urteko esperientzia edukitzea eskatzen zaio. "Ez dugu maila handirik eskatzen, baina bai ezagupen minimo bat; dena den, gaur egun ez dugu horrelako arazorik, bertako Musika Eskolatik etortzen bait dira gehienak". Ana Lekuonak hasera batean ez zuen zuzendari izateko ikas- keta berezirik egin. "Lehen beste zu- zendari bat genuen, baina zenbait ara- zo zirela eta, alde egin zuen. Hutsune hori norbaitek bete behar zuen, eta ni izan nintzen". Geroago zuzendaritza- rako zenbait ikastaro burutu ditu, baina berak dioen bezala, praktikaren bidez da gehien ikasten den modua.

Gaur egun ere 30 lagunek osatzen dute Beti Argi Banda, beti zenbaki berdinarekin inguruan dabilta, baina

esan beharra dago adina- ren batz bestekoa nahi- koa jeitsi dela. Hasieran Bandako musikariak gazteak baziren ere, gaur egun 12 eta 13 urteko gaz- tetxoak dira kide. Instru- mentuei dagokienez zen- bait desoreka ba omen daude. "Guri instrumentu asko falta zaizkigu, adibi- dez bost tronpeta edo tu- ruta ditugu eta tronboi bakarra. Hiru tronboi beharko genituzke eta baita tronpak ere, baina

ez dago instrumentu hau jotzen duen jenderik. Dena dela ondo moldatzen gara daukagunarekin".

Kontzertu gehienak Ordizian ema- ten badituzte ere, kanpora ere joaten dira sarritan. Batzuetan Euskal Herri mailan elkartrukeak egiten dituzte herrietako banden artean. Gironara ere joan izan dira inauterietan "patxanga" modura. Normalean ez dituzte entsaio gogorregiak egiten. Egun hauetan or- dea, gogor ari dira aktuazio ugari bait dituzte. Korpusetan herrian jo beharko dute, laster Ondarrora dihoaz beste kontzertu bat ematera eta Kilometroak 93-aren epe kulturalen Haizezko bos- kote eta Korallarekin batera jaialdi bat antolatzeke asmoa dute. Guzti honek lan ordu ugari suposatzen ditu, noski.

Orain berriz, Gipuzkoako Banden Federazioaren sorrerarekin, banden mundua gehiago mugituko den itxa- ropena du Ana Lekuonak. "Betidanik, bandak zaharrentzako gauza direla- koaren irudia izan dute, baina ez da horrela, Euskal Herriko bandatan oso jende gaztea dago".

Amaia Balerdi

Argazkia: Josetxo Marin



JAKINTZA IKASTOLA

Kalitatezko Euskal Eskola

Altamira auzoa. 160540 tfnoa.

Garagartza 4. 881213 tfnoa.

Segurako "Elorri" K.E.

ELORRI KULTUR ELKARTEA gaur egun 120 bazkidez osaturiko elkarte da. 85. urtean izen eta izatez eraberritu bazen ere, hutsetik ez zen sortu honelako talde zabala. "Lehendik "Gazte Elkartea" izenez mugitzen zen, ez dakigu gazteak zahar-tu edo zer arraio gertatu zen, baina ez zuen behar adinako eraginik kultur ekintzetan eta abarretan. Atzerago joaten bagara, lehen "Antoniotarrak" izenez eza-gutua zen, baita "Zentro" izenez ere, herri gehienetan bezala, apaizak eta elizak elkar-tearengan itzal zabala zuten. Oraindik gordeta daude orduko bazkideen izenak eta beste zenbait paper", dio bertako bazkidea den Rafael Gerrikok.

Baina gatozen gaur egunera eta Elorrik zer egiten duen eta zer egingo lukeen aipatzera. "Ez dugu estatutuen helburuak aipatzeko asmorik, Eusko Jaurlaritzaren bedekazio eta guzti ofizialtasun osoz mugitzen baikara". Herri kirolak bultzatzeko talde bat sortzea eta "Txoritegi" elkarteari desafioa botatzea Elorriin gauzatu zen eta harrezkeroko azken urteotan herriko festetan ikuskizun paregabea izaten da. Bide batez talde bikaina osatzen da orain Txoritegi eta Elorriren artean. Bestalde, "Elorritarrok hasi ginen berriro Santa Ageda bezperako eskeak egiten (Intxausti, Etxezarreta eta Agirre bertsolarien laguntzaz). Harrezkero beste zenbait talde badabil eta galtzeaz zegoen ohitura bat behintzat berpiztu dugu. Urte batez kopla guztiak jaso eta argitaratu egin genituen", dio Gerrikok, halako lanen arduradunak.

Bi bertso ikastaro ere antolatu zituz-

ten, Igartzabalen laguntzaz. Sei lehia-keta antolatu dituzte, "Bertso Paperak-Elorri Saria" izenez. Idatzitako bertso guztiak bildu eta liburuxka batean argitaratzen dituzte urtero, ondoren etxez-etxe dohan banatzen dituztela. Bertso-afari bat ere urtero antolatzen dute. "Argia" eguna, "Egunkaria" festa, "Korrika"ko mahaiak jarri, "Bate-



ginik" kanpaina eta honelako ekintza guztien bultzatzaile dira. Urtero jaialdi bat antolatzen dute Elkar-teak pilota-lekuan, bertsolari, soinu-jole, txiste kontalari eta abarrekin. Festetan ton-bola ere jartzen du. Gabonetan euskal presoei postal agurrak eta liburuak bidaltzen dizkiete eta urtero, urte zahar-gauetz, talde festa bat egiten dute plazan. "Mokadutxo batzuk egiteko sukaldetxo bate ere badugu eta gaztetxoentzat jokoak eta denborapasarako tresnak ditugu bertan", gehitzen du Rafaelak.

Jakina da ekintza hobeak egin daitezkeela, baina laguntzak urriak dira. "Udalak sekula santan ez digu peza bat ere ordaindu. Udalak berak ez egin eta egiten lagundu ere ez. Dirua ez ematearen arrazoia omen da, ba el-

karte honek 'kolorea' duela! Seguran %80ak ematen du botua eta, beraz, zein da hemen kolorerik gabekoa?", gaineratzen du. Kultur Elkartean bertan eta bere ekintzetan kolore ezberdineko jendea mugitzen dela ziurtatzen digu Gerrikok. Herriko enpresa, denda, tailer eta taberna hainbat izaten bide dira urtero beren laguntzatxo ematen dietenak, bertso-paperak argitaratzeko bereziki, eta lerro hauen bidez haiei Elorrikoen eskerrik beroenak bidaltzeko eskatzen digute.

Elkarteko bazkideetatik lau dira zinegotzi, "hiru kolore batekoak eta bat bestekoa. Dena den, aitzaki maitzaki, Elorrik nahi adina kultur ekintza ez da antolatzen herrian, eta honen ardurua Udalak beharko luke noski, kulturaren ere dirua inbertitu behar dela", diote beraiek.

Festak antolatzeaz gain, beste zerbait gehiago egin behar den ustekoak dira.

"Euskadiko Dantza Txapelketaz gain, gazte eta zahartxoagoentzat dantza libreko eskolatzeko bat ez legoke gaizki; arteen lehiaketatzeko antolatzea, zer esanik ez; urtean behin jaialdi bikain bat montatu liteke; perretxiku eta belar erakusketa politik egin daitezke; hizaldiren batzuk, Kultur Etxeari hautsak harrotzeko behintzat; zine edo bideo berezien emaldiak...". Zerrendarako ideak baditu elorritarrak.

Guzti hauek eta gehiago egingo omen litzuke Elorrik, baina, aidanez, ez da posible bazkideen kuoten sarre-ekin bakarrik. Kezkaren bat duen inork Elkar-te honen laguntza behar bala, jakin beza ateak zabalik dituela eta inongo eragozpenik ez duela izango.

M. Aramendi

IZARRA OSTATUA



Logelak, eguneroko menua eta berezia eta menu berezia aste buruetan
Turismo gaztearentzat aparta

Errepide nagusia, 428 kma. LEGORRETA
Erreserbak: 80 60 44 telefonoan

ATERPE TABERNA

kultur erakusketak
egiten dira

Tfnoa: 88 46 66

BEASAIN

ATAUNGO ERGONEKO IDAZLEA ESTIBALITZEN BIZI DA

Jose Arratibelekin kontu-kontari

Asko hitz egin da ataundar jendeaz, eta seguruenik asko hitz egingo da aurrerantzean ere: munduko edozein bazterretan aurkitzen dituzula, bizimodua baita harrietatik ere aterako luketela (zegamatarrak bezalaxe), "gauez lapurretan" aritzen direla...

"Ataun, erreta jazaun; egosita miñe;

Ataun ipurzikiñe", izan da azken aldi honetan ataundar bati entzun diogun esaera umoretsua. Baina horretaz gain, Ataun jende ospetsu eta jakintsuaren jaioterria izan da, eta gaur azken multzo honetako gizon bat ekarriko dugu orriotara: Ergoneko Jose Arratibel.

Sorgin-giroa

AITA Jose Arratibel Sarriartegarakoa etxean jaio zen. Hirurogeita hamar urte igaro dira harrez gero, baina urteak ezezik bizitzeko modu bat, usadio zahar eta mundu oso bat ere joan zaizkigu. "Beste giro bat zegoen --esaten digu--, sorgin giroa esate baterako, guregan oraindik bazen sorginen kontu hori". Eta hori esanda, bere amari gertatutako pasadizo bat kontatzen digu: mezatara eguna zabaldu baino lehen nola abiatu zen, tarrakata, eta halako batean norbaitekin topo eginda, amak larrituta "Egunon Jainkoak dizula" esan ziola, eta besteak "Baita zuri ere" erantzutean amak lasaitu ederra hartu zuela, inongo sorginak ez baitzuen halakorik erantzungo.

Orduko giro hartan ipuinek ere berebiziko garrantzia izaten zuten. Artazuriketan edo, afalondoko lanak egin bitartean, "Atte, kontu zahar bat" eskatzen zioten aita mandazainari, eta hark "Isilik egoten bazerate, bai". Orduan tarra-tarra-tarra hasten zen, bein Txerri Beltzarena, beste behin Txomin Ipurdiarena... eta patxada ederrean, giro gozo hartan gauerdia arte iharduten zuten. Gero errosarioa erreztatu eta lotara joaten ziren, eta akaso hurrengo



egunean Altsasura edo, estraperloan... "Txekorrak eta denak errekitatuta zeuden. Behi batek umea egiten zue-nean ez deklaratu egiten genuen; baina ez genuen nolanahi saltzerik. Orduan Nafarroara joaten ginen, hara joanez gero bost edo hamar xentimo gehiago ordaintzen zuten kiloko. Beraz, jornal handia zen. Eta goizean-goiz txekorra ondo lotu eta, tarraka-tarraka, mendiz Altsasuraino joaten ginen".

Jose Arratibelek bere haurtzaroa eta gaztaroaren hasiera baserri giro hartan eman zuen; hala ere, gero ez zen Beasainera lan egitera joan, Fabrika Haundira edo, eta horren ordeaz fraile joatea erabaki zuen. Eta Lazkaora joatera koan, bere aita jaunak honela hitz egin ziola gogoratzen du: "Joan hadi, motel, hemen baino hobeto egongo haiz. Hemen adina lokatz ez dek ibiliko. Segizak Jainkoaren bidea".

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO:

Euskalerrria K.

ORDIZIA

Tlfonoa: 88 04 15

Pentsuak

Ongarriak

Lantresnak

Industrialdea

OLABERRIA

Tlfonoa: 16 07 07

Lazkaoko komentuko inprimategia ikusita, berriz, txora-txora eginda geratu eta hala esan omen zion hango bu-ruari: "Ni ez naiz estudiantzera etorri, eh? Ni inprentan lan egitera etorri naiz". Eta besteak erantzun: "Baina inprentan lan egiteko ere ikasi beha-rreran zaude". Eta halaxe hasi zen *rosa, rosae*, gaztelania, historia ikasten...

Baina ipuinekiko zeukan zaletasu-
nak ez zuen etenik izan. "Gure eus-
kaldun lekaidea, kontalari bikaina

Nahiz eta ia galerazita egon euskara, fin idatzi zuen

dugu gaztetatik. Bere ogei urtekin gaz-
tetxoak biltzen ditu ta ao zabalik uzten
ditu ipui auekin", dio Latxagak, gure
Jose gero ipuinak idatzita jasotzera
animatuko zuenak. Umetan entzunda-
ko ipuinak idazten hasi aurretik, ikas-
ketak amaitu eta Caracasen hiru urte
emango zituen Arratibelek, eta azkenik
Arabako Estibalitzera etorriko zen, eta
han bizi da joan deneko hogeita bost
urteotan.

BIBLIOGRAFIA

ARRATIBEL Jose:

Kontu zaarrak, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1980

Dirua neurtzeko ontzia, Erein, Donostia

Mari Xor eta beste, Erein, Donostia

APALATEGI Joxemartin, *Introduccion a la historia oral*, Anthropos, Bartzelona, 1987

Kontu ederrak

Esan bezala, Josemari San Sebastia-
nek (Latxaga) akuilatuta, Jose Arrati-
bel "nahiz eta ia galerazita egon eus-
karaz idaztea", bere umetako ipuinak
paperean jasotzen hasi zen: "Nik ez
neukan iturri bat, tantaka-tantaka, ura
bezala ipuinak ematen zituen; ez, nik
putzu txiki bat neukan, eta hura hustu
zen eta kitto". Baina putzu horretatik
oso ipuin ederrak atera zituen, antigua-
lekoak, hizkera ederrean, eta *Kontu
zaarrak* liburuan argitaratu zituen. Eta
liburu horretako ipuinak haur eta la-
rrien gozamenerako ditugu, eta baita
gerra aurreko ipuin giroa hobeto eza-
gutzeko ere, izan ere, Joseren ustetan,
"neurri haundi batean giro hori gerrak
bukatu baitzuen".

Ora et labora

Eta agian hori dena gogoratzeko,
Jose Arratibel udazkeneko itzultzen da
Ataunera, "eta San Gregoriotik etxera

*oinez joaten naiz, ilundu eta gero, eta
nere artean pentsatzen dut: Hau sorgin
tokia da, beste hau ez dakit zer... Eta
norbaitek esaten badit kotzez era-
mango nauela, nik ezetz erantzuten
diot, nahiago dudala oinez joan..."*

Gaur egun Jose Estibalitzko monas-
tegian bizi da, eta lanean eta otoitzean
ematen du eguna (Ora et labora). Ko-
mentuan hamaika fraile bizi dira --tar-
tean Apaolaza zeraindarra--, eta orain
buru dutena iparraldekoa da eta az-
kar-azkar ari omen da gaztelania ikas-
ten. Beraz, guk Estibalitzera jo behar
izan genuen Joserekin hitz aspertu bat
egitera, eta aurrena hango eliza erro-
manikoan, hango bakardade itxuraz
hotzean zerbait berezia nabaritu ge-
nuen; ondoren Jose ezagutu genuen,
barre errazekoa, hizkera gozokoa,
etorri handikoa... eta a ze ongi etorria
egin zigun.

Patxi Zubizarreta

Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

20200 BEASAIN

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

Malcolm X

USA. Zuz.: Spike Lee. Arg.: Ernest Dickenson. Akt.: Denzel Washington, Angela Bassett, Albert Hall, e.a. 3 ordu t'erdia.

"Ez naiz amerikarra, amerikanismoaren kaltetua baizik", "Gizon zurriari hizkuntza ez biolentoan hitz egiten badiozu, ez dizu ulertuko. Zugana biolentziaren hizkuntzarekin jotzen badute, zuk ere doinu berean erantzun beharko diozu. Hori da komunikazioa", "Diskriminazioaren aurka probokazioa"...

Halako esaldiak Malcolm X jauna-renak ditugu. "X"ak bere aintzinako gurasoak esklabu bihurtzean galdu zuten abizena sinbolizatzen du. 39 urterekin hil zuten Malcolm eta bi ha-

markada geroago "berpiztu" da bete-betea, Spike Lee zinema zuzendari eta lider beltzaren miresle porrokatuak pantailaratu berri duen filmean.

Pelikula eszena eraginkor batez hasten da: iaz zenbait polizi zuriak auto-gidari beltz bati eman zioten pasara izugarri filmatuarekin. Segidan beltzen printzearen bizitzari egiten dio errepasoa, modu bizi eta borobilez. Nahiz eta ez duen biografia zehatz bat ematen, Spikek lider beltzari egin dion kantu sutua aurki dezakezu, ordea. Edozer gauzaren gainetik harrotasun beltzaren bultzagile amorratua zen Malcolm Little ohia eta "Gutarren artean ziur ezin badut egon, non egongo naiz ba ziur?", galdetu zuen bere

azken hitzaldia eman aurretik.

Filme bat baino askozaz gehiago honakoa. Estrenatu zen egun afro-amerikarrek alde egin zuten ik tetxe eta lantokietatik. Ez ziren tab netara joan, ez eta saski-baloian dun: zinemara joan ziren. Gu ere, nostiako zine-areto batean geund (Aberri Egunez), neska ile-horiak laxa galdetu zion pantailan Malcolm "Zer egin dezakegu zuriok zuen de?". Berak erantzun ziona, zorro "Baterez".

Halaxe da, baina euskaldunok ba omen dugu parekotasunik beltz kin, eta Ordiziara ekartzen dutene berriro hor izango gara. Hiru o t'erdia erre gabe. Merezi du, halere **Martin Garmendia**

BEASAINGO "ITAKA PUB"-EAN Entzukizun bizia eta zuzenean

Kavafis greziarrak zioenez, ez dio inporta ailegatzeak; bidaiatzea da kontua. Urrutira bidaia dezakezu musika entzunez, entzumenez. Jon Perez lazkaotarraren jabetzako Beasaingo Zaldizurreta kaleko "Itaka Pub"ean kantautore bat izaten da larunbat arratsaldero, 7etatik 9etara, joandako otsailaz geroztik. Kantaria Stewart gazte eskoziarra dugu, Ordizian bizi eta "Inlingua"n irakasten duena. Irakasle kontratua bukatu arte jarraitzeko hitza emana du.

Pubaren nagusiaren esanetan, amugisa jarri du ikusentzutezkoa eta baita musika bizia eta zuzenekoa gustatzen zaiolako; "piska bat mundutxoan ezezaguna den eta kezkak dituen jendea irteera emateagatik". Ormaiztegiko "Itxune"n dagoeneko kantaririk ez dagoenez, halako bakarra izango da hau Goierri guztian. Errepertorioan: Poli-



ce, David Bowie, Talkin' Heads, REM, Nirvana, Moddie Blues eta beste hainbat musikari anglosajoi ezagunen bertsioak ere badaki egiten. Euskaldunak ere bertsioneatzen ditu: Laboa,

Benito, e.a. Drindots-ekoek, bura ari diren diskorako engantxatu Stewart.

Bezereoz betetzen da hura eta pkoak oso ondo erantzuten du. Hako hoztasunak ahaztuta, gero gehiagora dihoa. Elvis Presle errepertorio osoa kantatzekotan Aste Santuaren hurrengo larunb eskoziarra eta Beasaingo Luismtea. Peruar folk-lore talde bat ere, kotan zen Itakan erredakzio hau rakoan. "Istoria hauek jendea berezia eskeini eta monotoniati ratzeko antolatzen ditut", dio la tarrak.

"Aterpe" tabernan pintura pro nista den bezala, musika jenuin "Itakan", eta bertsioak izan arre jinalaren inbidia gabekoak au tzakezu.

Fermin Eguren

ETXE ZURI SAGARDOTEGIA

Errekalde Auzoa
88 20 49 telf.
OLABERRIA

**GRUPO
VITALICIO**

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAK

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86

Axier Zinkunegi legorretarra, aktore

Arteetarako zaletasuna eta diziplina ezberdinetan jantzi-nahia begibistan nabaritzen zaio. Hasi berria da, baina lan egin nahi

du satisfaziorik gehien ematen dion antzerki horretan. Atzerrira joan nahi luke ikastera. Gaztea den artean ez badoa, noiz?

Axier Zinkunegi 21 urteko aktore legorretarra izan liteke herri horretako antzerkizaleen azken katemaila. Errenteriko Antzerki eskola ezagunean ikasten du. Orain urte batzuk batxilergoa ikasten ari zela Tolosan, behinola yoga klaseetara zihola lagun batekin, antzerki ikastarobaten hasera iragartzen zuen kartel batekin egin zuen topo eta segituan apuntatu zen, betidanik gustatu izan zaio-lako.

Billabonako Ikastolan bere umetako lehen antzerki lantxo egin zuen. "Zaletasuna barnean neukan, baina behinere ez nintzen ausartu pausu hori ematera". Berak uste du Legorretan antzerki zaletasunik badela, hor daude la argiztaketetan ibilitako Bixente, Joxerramon Soroiz eta Xabier Agirre, baina kasualitatea eta anekdotikoa dela hori. Nahiz antzokia baden eta antzerkia ere egin izan den.


Tolosako Kultur Etxean Maite Agirre eta "Agerre" teatro taldeko bi aktoreen klaseak hartzen hasi 18 urte zituenean, eta 15 egunera, Maitek obra bat montatzen ari zela eta entsaiatzen hasiko ote zen galdetu zion. "Prest egon nintzen. Egunean 4-5 ordu entsaiatzen genituen. Salako lana, nola Maiteren lana gehienbat gorputzean eta gorputz-espresioan oinarriturik dagoen, bada, hori lantzen 7 bat hila-bete eman genituen".

Ikuskizuna montatzen joan zen, "Pantzar" Pastoral. Ordurako "Pilotari" egin zuen. Geroztik pastorekin ibili dira emanaldiz emanaldi. Geroztik monologo bat prestatu du Agirrek, James Joyceren "Ulysses"en amaierako "Molly Bloom", bere kontura. Talde horretan kontrataturik dago Axier, ez da "Agerre"ko partaide (beste zenbait aktore bezala), obra-bukararte dago eta ez daki hori bukatutakoan berarekin kontatuko duten ala ez.

Abangoardian

Euskal antzertian kostunbrismorako joera indartu bada ere, Maite Agirreren muntaiak abangoardistak izaten jarrai-

tzen dute. "Pelotari" eta halakoen aurrean (pilotan jokatzen ari direnen plantak egiten dituztenei begira) kale-tar arruntak pentsa dezake: "edo gu oso tontoak gara edo hauek oso azkarrak". Horri zer derizkion galdetu diogu Axierri. "Bide nahiko esperimentala-goak jorratu dizkik. Nere ustetan, saiatu da euskal kulturaren arlo guztien sintesi bat egiten. Esateko, Becket-en lanak, "Pelotari" bera, Oteizaren hutsunearen teoriekin beteaz. Hor euskal artista asko mogitu da, Mitxelena eskultorea, Tapia trikitilariaren musika, e.a."



Hasiera batean galduta sentitzen zen, antzerkiarekiko kontaktu txikia zuen, eta derrepente antzerki esperimental itxurako roilo batean sartzea oso fuertea dela dio. Jeneralean jende prestatua sartzan baita halako mogidetan. "Piskanaka ikasten zoaz, irakurritz teoria teatrale buruzkoak eta piska bat tiroak nondik doazen ohartzen zoaz". Orain ulertzen du benetan Maiteren antzerki-kontzepzioa zertan den.

Dirua bai, baina faltan

Aktuazioko ordaintzen diote. 92.-93.etan 40 eta piku emanaldi. "Nere egoera ekonomikoa txarra izatea logikoa da, oraintxe hasi bait naiz. 8-10 urte daramatzatenena, profesional gisa kontsideratuena ere txarra da, beraz... Oso zaila da antzerkitik bizitzeta". Bekaren bat lortzeko eta atzerrira ateratzeko gogoia du legorretarrak. Baina subentzioa arazo latza da. Adib., iaz 200 postu bakante baziren...

Jende askoren ustez, teatrero jendeak lo egiten du eguerdi artean. Badu pasadizo bat horrekin lotua: "Behin Victoria Eugenia opera bat montatzen ari ginen eta han nenbilen figurante bezala. Atera naiz gurasoak agurtzera eta hauek lagun batzuekin egin topo. Zer egiten nuen eta antzerkia. 'Onbre, kontutik bizi direnetakoa, beraz?!'. Kontutik ezin da bizi, malbizi baizik, antzerkiak ez du ezer ematen: fama nahi baduzu, ez sartu antzerkira, inork ez zaitu ezagutuko; dirua bada-go, baina faltan..." , diosku Zinkunegik, asumiturik daukanaren itxurarekin.

Euskal antzerkiaren panorama, orokorrean eta laburbilduz, eskastzat jotzen du gure aktoreak. Diputazioaren subentzio politika murriztuz dihoa eta eskapate-politika gehituz. "Lehen subentzio gutxi, gutxiagora dihoa eta laister batere ez. Egoera txarra da: zirkuitu iraunkor bat montatu eta jendea antzerkira joaten erakutsi beharrean, betikoa egiten da: ikuskizun erraldoi baterako diru pilo bat eman eta talde txikiei kendu. Antzerkiari ez zaio batere mesederik egiten".

Antzerkia ikaragarri eta Artearen arlo asko ditu gustoko. Etorkizuna zaila duenaren jakitun, "arteak ez du tripa betetzen" eta telebistarako lantxo batzuekin egin ditu dagoeneko. Luze eta xamur hitz egin liteke berarekin eta zorte ona opa diogu.

Jon Arano

Publizitatea

Zein da aldizkari irakurriena Goierri? Zure publizitatea 3.000 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa.

Dei 88 96 12 telefonora.

Idea jatorrenek ere bultzada behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote

GOIERRITARRA

GOIERRITARRA

Tfnoa: 88 96 12

publizitate-prezioak:

Behin):

Modulo bat.....4.000 pzta.

Bi modulo8.000 pzta.

Orrialde erdia.....20.000 pzta.

Orrialde osoa.....40.000 pzta

ratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbaki-tan beren publizitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat.....3.500 pzta.

Bi modulo7.000 pzta.

Orrialde erdia.....17.500 pzta.

Orrialde osoa.....35.000 pzta.

Prezio hauek zenbaki baterako baliore dute. Urtean 10 zenbaki argitaratu behar dira.

* Karta Zerbitzua

* Lan menuak

RUBIORENA JATETXEA

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 B E A S A I N

ALTZAGARATE JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaia, e.a. ospatzeko
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora.

ALTZAGA.

Serragi TAPIZERIA

TAPIZERIA - DEKORAZIOA

Goiherri, 12
Teléfono, 88 31 53



ORDIZIA



DOMINGO UNANUE PLAZA

Tf.: 88 93 25

20240 ORDIZIA




Arraultzaritza
eta salmenta

Bikuña 19 eta Gurutzeta gaina
IDIAZABAL
Tel.: 80 12 59 - 80 10 77
Faxa: 80 14 76

San Migel Goiaingeruari jarriak

- | | | | |
|---|---|--|---|
| 1
Millaz ondoren bederatzireun ta
Amazazpigarren urtean
Kantak jartzeko eskatuz dauzkat
Egiaz ta borondatean,
Aita San Migel Goiaingerua
Naparroako aldean
Dagoanari Alar-mendiko
Arkaitz goienen batean. | 6
Egun sentian goiz Konstanza ori
Errezoan zala elizan
Aita eta ama oyan utzita
Errain garbiyaren gisan,
Bien bitartean errezelotan
Zalduna gelan sartu zan
Oatzean bi lagun billatutzean
Itz gabe iltzalle izan zan. | 11
Ayedo'tikan urrena berriz
Aralar Mendira sartu
San Migel'en dagon leize zuloan
Egunero erreztatu,
An-zegola igansuga bat
Ateratzea tokatu
Estuasunik gogorrenetan
Ordu-artan zan gertatu. | 16
Dagonill ontan izaten degu
Asulbizio-eguna
Erregutuaz ondasun eske
Asko etortzen gerana;
Dakigulako Goiaingerua
Txit errukitsua dana
Lagundu gabe ez du utzitzen
Bera maitatzen duana. |
| 2
Bertso berriak jartzera nua
San Migel Goiaingeru Exelsi
Egizko sinismendunak
Irakurri ta ikasi,
Errukigarri ibiltzen dana
Sinisteatik igasi
Aitortu gabe Jesus degula
Zeru ta lurren nagusi. | 7
Emazte-morroyak ziradelako
Il-oztuta gurasoak
Itxuturikan etxetik irten zan
Jasota ezpata-besoak;
Eliz-aurrean arkitu zuan
Bere emazte gozoak
Ikusitzean zer naigabea
Odol ta gorputz osoak. | 12
Ura larria igansugea
Eziñik burrukatu-ta
Oju egin zuan "atoz San Migel"
Ia galdua naiz eta;
Esan bezela etorri ere
Jasorik bere ezpata
Igansugea garbitu zuan
Kate uztayak puskata. | 17
Aita San Migel Euzkal-errian
Etzaguzkagu aztua
Sayatu beti zuzendutzeroa
Seme alaba gaiztoa,
Josepe'tako soro aundian
Degu epaya estua
Euzkaldun danok laztandu-eta
Artu zerorren eskua. |
| 3
Lendabiziko Teodosio jauna
Goñi'ko Zaldunarekin
Esan bear det zer gertatu zan
Garbitasun guzirekin;
Ez dakianak papeltxo bana
Artuta dezaten jakin
Okerrik ezda etortzen gauza
Ona ikasiarekin. | 8
Emazteari oatzean zeintzan
Au da galdetu ziyona,
Erantzun zion: gelditu dira
Zeure Aita eta Ama;
Deadarrez dio: Eudon'engatik
Ai! nik egin dean lana
Penitentzi eske Erroma'ra jua zan
Aita Santuarengana. | 13
Penitentzi au osaturikan
Zaldunak adierazi
Leize ondoan txabola egiten
Beriala zuan asi;
Gaur ermita bat ospatsuagua
Nun egiten da ikusi
Eta begirapen aundiagoan
Bere apaiz eta guzi. | 18
Sinisgabea izanarentzat
Dator estua trantzea
Ona betiko glorira eta
Txarra Judas'i launtzea,
Ludi onetan bizitzen dana
Kristau zuzenen antzera
Goiaingerua laztanduko du
Eduki uste betea. |
| 4
Zereginetan ibilli ondoren
Teodosio jaun ta Zalduna
Bukaturikan etxera zetorren
Egitera azaldu-ona;
Eta bidean sinisturikan
Judutar Eudon'ek esana
Oatzean ilda utzi zituan
Bere aita eta ama. | 9
Penitentzia eman ziona
Ordaindu naizuan laxter
Burnizko uztaya lepoan jarri
Andik gerrira bi kate,
Mendirik-mendi ibillitzeko
Oso ayek eten-arte
Bizkarrean berriz gurutze aundia
Aitzaz gañera aparte. | 14
Inguruetan ez du besterik
Arkaitza eta arria
Uarte-Arakil deitzen zayona
Lendabiziko erria;
Goiaingerua ala azaltzea
Zer gauza arrigarria,
Jaun-Goikuak eukiko zuan
Onerakoxe jarria. | 19
Tedodosio'k berak laxter zituan
Penitentziak beteak
Mendirik-mendi beti ibilliaz
Jai-aste, il ta urteak,
Aita degunak barkatu ere
Egin zituan kalteak
Siñismengarri argatik daude
Leize ondoan kateak. |
| 5
Butron'darretako Konstanza zuan
Teodosio'k emaztea
Eudon'ek esan zion morroya
Kutun zeukala bestea,
Etixeratzean gertatuko zala
Begiakin ikustea
Argatik zuten aita eta amak
Ala ilbear tristea. | 10
Danak artuta lendabiziko
Jorik Ayedo'ko mendira
Bitartekotzat jarri zuala
San Migel Goiaingeru aundia,
Kate malla bat an ausi zuan
Bein gora eta bein bera
Ibillera ayen eramantzalle
(Gaur Ludi ontan zein gera?) | 15
Aita San Migel Goiaingerua
Earrukitsu leyalkoya
Zuberoa'tik Ebro arteko
Euzkal-Errien Patroya,
Zorionean azaldu ziñan
Gugana Alarr'en goya
Zaitu beti Euzkal-Erria eta
Gure gañeko odeya. | 20
Zer gertatu zan papel onetan
Zabaldutzen da berria
Gazte guztiok ikasitzera
Gauza bat miragarriya.
Agur San Migel Goiaingerua
Zaitu beti Euzkal-Erria
Francisco Erauskin Zaldibitarra
Ni kanta oek jarria. |


Ordizia (Villafranca), Uzta 14, 1917.
E. Lopez'en etxean



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

KALITATEZKO ELIKADURA, OSASUNAREN OINARRIA



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77/88 17 93 - 20240 ORDIZIA


**Baserritar: egin erakargarri zure produktua.*

**Erosle: bertako produktuan dago zure aukera.*



NEKAZALTURISMOA

OBRATAN DAUDEN BAINUGELAK JANZTEN ESPEZIALISTAK



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Nafarroa Etorbidea, 45

Tfnoa: 88 54 66
BEASAIN

- *Igeltseritza
- *Linternaritza
- *Elektrizitatea
- *Arotzeria
- *Arotzeria metalikoa
- *Pintura

- *Dekorazioa
- *Obra amaierako-garbitak
- *Konpromezurik gabeko aurrekontuak


ZERBITZU OROKORRAK

ERAIKUNTZA, MONTAIA ETA MANTENIMETUAK

- * Karakol, zeharkako eta abar eskilarak.
- * Entreplanta estrukturalak:
 - ⇒ Igogailu edo montakargak.
 - ⇒ 2.000 Kgmrarteko mota guztietako pluma besodunak.
 - ⇒ 3.000 Kgmrarteko monorail eta puente gruak.

Ibabe Industrialdea, 7
LAZKAO

Tfnoa: 88 86 59
Faxa: 16 00 34





Franzisko Garmendia lazkaotarra New York-eko obixpu auxiliarra

Bere berri baguenen handik eta hemendik, baina oraingoan Espainiako "Interviu" aldizkaritik jaso berri ditugu. Orain 69 urte Lazkaon jaioa ("Las-


cao" dio "Interviu" k) umil-asko bizi omen da Bronx-eko auzo arriskutsuan, nahiz eta New York-eko obixpu-ordezkoa eta Bronx-eko bikario nagusia izan. "Ez idazue monsiñore deitu, Pako baizik" esan die kazetariei.

"Paradisua ren antza gutxien duen lekua da hau", esan die, urteetan Estatu Batuetan bizi izan arren, bere euskal azentua galdu ez duen Garmendiak. Kazetariok ikusi ahal izan dutenez beren bixitan, guztiek maitatzen eta errespetatzen dute goierritarra. Elkarriketan zehar "Espainiaz" galde eta galde euki omen zuten eta "nire jaio-terriaren eta bertako sukaldaritzaren maitale sutsua naiz" adierazi bide zuten.

"Ura, argia, ohea, telefonoa eta faxa badituz. Zer gehiago behar dut? Zoriontsua naiz hemen, egon beharreko lekuan nago, nireen, behartsuen aldamenean", gehitu du. Bere lana auzo

hartako beharrian ikaragarriak konpontzea da. Lazkaotarraren ustez, familiaren desintegrazioa, haustura, da kezkarria; toxikomanoak, hiesdunak eta prostituziotik bizi direnak geroz eta gehiago dira Bronx-en eta guzti horren errua langabeziak eta drogak dituzte. Geroz eta bortxakeria gehiago dago eta lau aldiz saiatu bide dira Frantzisko erahiltzen, duela 18 urte kargua bere gain hartu zuenez geroztik.

Bere lana dela eta maitatua eta eza-guna izatera iritsi da hainbaten artean. Estatuko egunkari progresistetan azal dutako erreportairen batzutan, "gurutzada katolikoaren" eta postura kontserbadoreen burutzat jo izan dute. Mutur batekoa zein bestekoa izan, hau ere goierritarra dugu eta horrexek inporta digu bakarrik. Urtero etortzen da jaio-terrirra Garmendiatarra eta aurten ere hemen izango al dugu!



Iñaki Izagirre lazkaotarra irudimena lantzen sukaldean

Sukaldeko lana etengabeko eguneroko estrinatzea delakoan dago. Laz-

kaon jaio eta familiaren jatetxe batean ikasten hasi Legazpin, Iruñeara aldatu gero eta hainbat herrialde, jatetxe eta hoteletan lan egin ondoren Sebillara jo zuen, eta handik Madril.

"Altzateko Jaun" deritzon jatetxean zegoen orain dela denbora bat behintzat zuzendari eta sukaldeko nagusi gisan, 26 enplegatu dituela bere esanetara. Sukaldeko alor bakoitzak ditu enkargatuak eta laguntzaileak eta "dena bertan egiten den enpresa bat dugu honakoa, hasi ogitik, segi gozogintzarekin eta jaboia ere geuk egiten dugu, grasa zaharrak aprobetxatuz", adierazi zion industria alorreko aldizkari bati.

Izugarritako bezeroak dituztelakoan dago lazkaotarra: politikako, arteetako, literaturako, zine eta prentsa-munduko jendea, besteak beste. Bere sukaldaritzak euskal sustraiak ditu, aidanez, baina azkenean Izagirreraren zingilua darama. Jatetxe horrek urtean

zortzi alditan aldatzen du kartaz.

Azokara erosketak egitera joatea oso garrantzizkotzat jotzen du; sasoiko produktu freskoak erabiltzen ditu eta bere helburua sukaldaritza sana eta ahalik eta goxoen eta apainena egitea da. Oinarritzakoa zaporeak sortzea edo bere gustokoenak bilatzea dela dio eta ahal duen platerik okurrenteenak lortzea.

Iñaki Izagirrek Espainiako "Premio Nacional de Gastronomía" delakoa jaso zuen 88.ean. Uste du, euskaldun errestituratzailak Madrilen gailentzen badira, zeragatik dela: "Bai Gipuzkoan eta bai Nafarroan sukaldaritza maila altu bat dagoelako da. Espainiako 'iparraldeko' eta 'hegoaldeko' sukaldarien artean alderik nabariena da goikoak bokazionalak direla eta zonalde horretan gainera hostalaritza eskola oso inportanteak sortu dira gainera". Bere lana eginez disfrutatzen segitu nahi du goierritarrak.



GOIAGI OKINDEGIA

Etxezarreta, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA




ZABALE

OKINDEGIA
DIETETIKA

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

FOTOETXE



ARGAZKILARIAK
Gemma, Josemari eta Lake

*Orain,
ORDIZIAN ere bai!*

MAIATZAK 17-TIK AURRERA

Nagusia, 6 (lehen F. Aygues)
ORDIZIA

Nafarroa Etorb. 23
BEASAIN

Zein da zurea?



LAGUN ARO VIDA

Euskadiko Kutxa Taldekoa

Aukerarik onena

KUTIZIAK ETA DELIZIAK... Ordiziako "Pottolo-enea"n

Benitotar Pedro eta Juanje eta aurrenekoaren emazte Karolinaren arteko familiako negozio gisa dago montaturik Ordiziako "Pottolo-enea" taberna eta jatetxea. Pedro betidanik egon da murgildurik sukaldaritzan, txikitatik saltseatzen zuen sukaldean, amona eta aita-amengandik datorkio, mundu oso bat ezagutzeko, ontto eta perretxikuak biltzeko eta ehiztariek ekarritakoak prestatzeko zaletasuna. Baita erreketan arrantza egitekoa.

"Pottolo" honen bizitzan eragin-garrienak natura, urte sasoiak eta sukaldia izan dira. Jangai freskoaren eta ahal dela enbotatugabekoaren miresle dela esan nahi du horrek (ez da esan nahi hozgailua gorroto duenik, alde-rantziz, neguan ez dauden produktuak eukitzea errazten baitu). Esandakoek zerikusi handia dute bere lanarekin, afizioarekin. Soziedadezale amorratua izan da eta 30 urte daramatza sukaldian. Ehiza emendatzea izugarri gustoko du. Gastronomia sailerako ez ezik elkarrietzeta mamitsu eta luze baterako ematen du. Exkisitoa da. Pateak, faisanak, ardoak, ahateak, e.a., e.a. ateratzen ditu mahaira apetitua irekitzen digularik. Lapa eta kiskilei,



triku eta eskaluei etekina ateratzen eta plater nobedosoak inbentatzen jakin izan du. Koktelariak txoraturik dauka. Argiñano eta Castillotarrak aho-zabalik utzi izan ditu. ETBn 2 alditan gailendu zen "Zopa haundi" lehiaketan...

8 urte daramatza profesional moduan: Ikastolaren Olaberriako sagardotegia izanikoan, Donostiako "Ordizia"n, eta orain 6 urte hartutako "Sarasola" taberna zenan, "Pottolo-enean" alegia. Bertako mostradorean egon ohi den pintxo aukera ezin zabalagoak aho-gozatu ederrak eman ditu. Orduan ez zen betiko pintxoez apartekoen ohiturarik Ordizian eta 100 pintxo ezberdin izatera iritsi dira: begetalak, izokina kabiak eta saltsa arro-

sarekin, zizak denetarik, baita jangarriak ez zirela ziruditenak, "mendiko kokotxak", batxuri prexkoak ganbe-kin, "txipiroia plantxan" ospetsua, "txapelak", "mujuriko deliziak", eta zer ez?!

Jangelan ehize-gaiekin lan egiten dute asko eta asko. Bi menu berezi proposatu dizkigu. Bataio bat: frijitu bero eta sarrerako hotzak, almejak, txanpinoiak saltsan, otarrainskak, arrai-zopa edo hegazti-krema, legatza eta solomilloa edo arkumea eta postre-ak (etxeakoak) ardoak (erreserba onenetakoak dituzte) eta kafe kopak 4.000 pzta. ingurun aterako zaizkizu 6.000n ateratzen direnean han eta hemen.

Gaszte-jende koadrilentzat: arkume-jana, erredondoa saltsan, legatza saltsan edo koxkera erara, edariak postre eta kafeak 2.500-3000 inguruan dabilta. Karta 2.500 inguruan darabil eta astegunean edo igandetan ematen ditu bakarrik plater konbinatuak. Arteaga kalearen 1ean, Etxezarretatik ere sarrera duela dago Sukaldaritzaren Santutegi potxoloa. 880035 telefonoa. Ezagutu beharrekoa.

J. Arandia

UDAL BEASAIN EUSKALTEGIA
LOINAZKO S. MARTIN PLAZA
KULTUR ETXEA, 1.a
Tel. 889094

Festa on batzuk opa dizkizuegu



**KORRIKA-8
BATZORDEAK**

Beren ezinbesteko laguntza-gatik Korrika-8 honen antolaketan lagundu eta parte hartu duten guzti-guztiak eskertu nahi ditu.

OTEGI-UNANUE

EDOZEIN ERAIKUNTZA EGITEKO PRESTATUA



Beko-Kale, 17 - 1.º
Telefonoa, 16 02 22
20249 ITSASONDO (Gipuzkoa)

ERAIKUNTZAK

AVICOLA ERREKALDE

OILASKO GORRIAK

Kalitatezko oilasko gustatzen zaizu?

Baina markako oilaskoa!

PROBA ITZAZU!

Hegazki-granja ERREKALDEn dauzkagu. Gorri normalak, lepo soilak, adin ezberdinekoak.

GRANJA SALMENTA.

BANAKETA EUSKAL HERRI OSOAN

Tel.: 80 61 98 - LEGORRETA



-
-
-
-

kutxa fundazioa
fundación kutxa

-
-
-

gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza
obra social de la caja gipuzkoa san sebastián